

Kultura

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestran jotzeko aukeratu dituzte Jone Ertzilla eta Martin Gabiria durangarrak > 11



JAIK!

**GARAI
MAÑARIA
MALLABIA**

900.000 euro urtean, eskualdeko liberatuen soldatak ordaintzeko

Durangaldeko politikarien artean, Durangoko liberatuak dira soldatarik handienak dituztenak; soldata guztiak batuta, 353.000 euro gastatu beharko ditu udalak

Politikariek eduki beharreko gardentasuna eguneroko berbagai bihurtu da. Herritarren diruagaz ordaintzen dira euren soldatak, eta jokamolde etikoaren gaineko eztabaida inoiz baino biziago dago. Udalak osatu diren honetan, zenbat kobratuko dute Durangaldeko kargudunek? Hamahiru herrietako soldata guztiak kontuan hartuz gero, milioi bat eurotik gertu ibiliko da urteroko aurrekontua. Kasu gutxitan murriztu dute soldata, eta, Abadiñon, adibidez, beste liberazio erdi bi ezarri dituzte. Kontrara, soldata zati bat mugimendu sozialetan inbertituko du Durangoko Herriaren Eskubideak. > 4

Euskara ikastea udako erronka

Euskara ikasteko inguru euskalduna sortzea oinarritzkoa da. Horregatik, hainbat ikaslek, euskara mailari bultzada eman guran, Zornotzako barnetegira joatea erabaki dute. > 2



Durango > 6

Txosnagunea Landako Gunean jarri gura du udalak

Elorrio > 8

Txupinazoa Garamenditar Agustin musika eskolak jaurtiko du

Zornotza > 3

Okupatutako lokaleko sei gazteri usurpazio delitua egotzi diete

Atxondo > 9

Udalaren etxebizitzak errentan emateko prozesua martxan da



Egozteen aurrean, “ziztadak ematen jarraitzeko asmoa” dute

Ziztada gune askeko sei gazteri usurpazio delitua egotzi diete; hala ere, euren asmoekin aurrera jarraitu, eta lokal okupatua inauguratuko dute hilaren 24an



Lehen agerraldi publikoan, erle mozorroan agertu ziren Ziztada gune askeko kide batzuk.

ZORNOTZA J. Derteano
Ziztada gune askeko –izen hori jarri diote Zornotzako lokal okupatuari– asanbladak lehenengo

agerraldi publikoa egin zuen-martitzenean, lokalaren atarian eskainitako prentsurrekoagaz; 25 bat lagun batu ziren, horieta-

ko batzuk erle mozorroan, mugimenduaren izaera islatzeko asmoz. Helburu bi izan zituen prentsurrekoak: sei lagun

inputazioa salatzea eta lokalaren inaugurazioa iragartzea.

Lokalaren jabeak salaketa jarri ostean, sei gazteri usurpazio delitua egotzi dietela adierazi zuten: “Gutako bi Ertzaintzak identifikatu gintuen lokalean bertan, eta beste lauri zitazioa zuzenean heldu zaie etxera, inork lehenago identifikatu barik”. Ondorioz, irailaren 11n, sei inputatuek Durangoko epaitegian deklaratu beharko dute. Zigorrak 120 eurotik 1.800 eurora bitartekoak izan daitezkeela gogoratu zuten. Jabeari salaketaren kontua “berriro pentsatzeko” eskatu zioten, eta “negoiatzeko borondatea” plazaratu zuten beste behin: “Ez dugu ahaztu behar lokala aspalditik zegoela abandonatuta, oso zikin eta egoera txarrean. Lokala berpiztu, erortzeko arriskutik libratu, eta ziztadaz ziztada bizia eman diogu”.

Okupazioa “zilegi” ikusten dutela berretsi zuten, eta ekin-tza kultural autogestionatuak eta merkatutik kanpokoak an-

tolatzen jarraitzeko asmoa erakutsi zuten: “Sikatuta zegoen erlauntza eztiz blaitzera gatoz”.

Lokalaren inaugurazioa

Bide horretan, Ziztada gune askea uztailaren 24ko Ziztada Egunagaz inauguratuko dutela iragarri zuten, eta herritarrak Ziztada gune askean zein inaugurazioko ekitaldietan parte hartzera gonbidatu zituzten: “Guztiok duzue tokia hemen”.

ZIZTADA EGUNA Uztailak 24

- **Goizean**, umeen jolasak.
- **12:00etan**, soinu teknikari ikastaroa.
- **14:00etan**, bazkaria.
- **16:00etan**, Gontzal bakarlariaren musika.
- **20:00etan**, kontzertuak: Narcissus, Zirkinik Bez, Primeros Auxilios, Steepers, Kodigo 66 eta Saltavallas.
- **23:00etan**, kalejira.

Bernako jaiak hasiko dituzte uztailaren 31n, Donien Atxa jasota

ZORNOTZA J.D.
Berna auzoan jaiak ospatuko dituzte uztailaren 31tik abuztuaren 2rako asteburuan. Datorren barikuan, 20:00etan hasiko dituzte jaiak, txapligu eta kanpai hotsen laguntzagaz, Donien Atxa jasota.

Zapatuan, Ariñ Ariñ dantza taldearen saioa, saltxitxa-jana eta triki-poteoa izango dira, mezaren ostean. Arratsaldean, umeen jolasak egingo dituzte, eta, 21:00etako auzo afariaren ostean, Obaneuke erromeria taldeak girotuko du gaua. Domekan, herri bazkaria egingo dute, eguerdian, eta 18:00etarako briska txapelketa antolatu dute. Lau sari banatuko dituzte, eta irabazleak 70 euro jasoko ditu. Eta, 22:00etan, Ikerren eta Unairen erromeriagaz egin ahal da dantzan.

Udako argazki onena sarituko du ANBOTOK

Lehiaketako sariak asteburu-pasa bi izango dira

DURANGALDEA A. Ugalde
ANBOTOn irakurleok makina bat argazki aterako duzue uda honetan. Argazki onenaren bila, argazki lehiaketa antolatu du ANBOTOK. Argazkiak www.anboto.org webgunearen bidez bidali ahal da datorren aste-tik aurrera, eta argazki galeria batean egongo dira ikusgai. Lehiaketan irabazle bi egongo dira: lehenengo irabazlea zein izango den webguneko erabiltzaileek erabakiko dute, anboto.org helbidean botoa emanda.

Webgunearen bidez bidali ahal da argazkiak, eta bertatik botoa emateko aukera egongo da

Bigarrena zein den ANBOTOk epaimahaiak erabakiko du. Irabazleentzako saria asteburu-pasa bana izango da.

Irailaren 18ra arte parte hartu ahal da lehiaketan, eta bakoitzak gehienez bost argazki aurkeztu ditzake. Parte-hartzaileek 16 urte edo gehiago izan beharko dute, eta Durangaldean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal da lehiaketan.

Irabazleak nortzuk diren urriko lehenengo barikuan jakinaraziko du ANBOTOK, papereko edizioan eta webgunean. Argazkiak ANBOTOn artxiboan gordeko dira, eta aurrerantzean, erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Udazkenean, lehiaketako argazki guztiekin erakusketa jarriko da Plateruena Kafe Antzokian.



Argazkiak irailaren 18ra arte bidali ahal da. Lehiar Elorriaga



Informazio guztia ‘anboto.org’ webgunean dago ikusgai. Lehiar Elorriaga

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

A. Urreta
podólogo

Ainara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214006

900.000 euro urtean, eskualdeko liberatuei soldatak ordaintzeko

Herriaren Eskubideak mugimendu sozialetan inbertituko du soldaten zati bat



Durango liberatuen soldatak batuta, 353.000 euro gastatuko ditu udalak.

DURANGALDEA M. Onaindia 900.000 euro urtean. Hori izango da Durangaldeko alkateei eta liberatuei soldata ordaintzeko erabiliko den diru publikoa. Herriarik herri, aldea dago soldaten artean, eta alderdien barruan ere aldeak daude. Aitziber Irigoras durangarrak kobratuko du gehien: 73.000 euro.

Abadiñon, Navarroz gainera, Abadiñoko Independentek taldeko eta EAJko bana lanaldi erdira egongo dira, bakoitza 22.000 euroko soldatagaz. Zornotzan

ere beste bi egongo dira, 55.000 eta 37.000 eurogaz. Durangon, alderdi bakoitzak liberatu bat du, eta 56.000 euro jasoko dute.

Herriaren Eskubideak alderdiak (Podemos) nobedadea dakar Durangora. Soldata bakarragaz, zinegotzi bi liberatuko dira lanaldi osora, irailean, eta, gainera, egokitzen zaiena baino gutxiago kobratuko dute. Julián Riosek esan du euren “kode etikoaren” arabera, gehieneko soldatak ezin duela oinarritzko soldataren hirukoitza gaintitu.

Soberakina, alderdian barik, Durango mugimendu eta behar sozialetan inbertituko du. EH Bilduk ere topea du soldatean, eta zinegotziek berezko lanean kobratzen dutena hartzen du erreferentziatzat normalean.

Otxandion atzo erabaki behar zuten gaia (ANBOTOk edizioa itxi ostean), eta Elorrioren egunotan egingo dute. Buruagaz esan du bi liberatuko direla, baina “orain arte baino gutxiago kobratuz”. Mallabiko Igor Agirrek %4,5 bajatu du soldata.

Animalia hilen zatiak agertu dira birritan, paper eta kartoiaren kontainerretan

Kontainerren erabilera txarraz informatu dute

DURANGALDEA M.O. Papera eta kartoiak jasotzeko kontainerretan animalia hilen zatiak bota zituen herritarren batek, ekainean. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak adierazi du edukiontzia txarto erabiltzeko joera ez dela berria, eta herritarrek kontzientziatzeko beharra azpimarratu du.

Birritan agertu dira animalia zatiak. Batean, ardi zatiak

Herritarren batek animaliak bota gura baditu, Base Gorrira deitzeko eskatu du Oskar Zarrabeitiak

eta, bestean, untxi zatiak. Edukiontzietan batzen dena Zornotzako fabrika batera eramaten dute, eta han topatu dituzte animalien gorpuzkiak. Ondorioz, ez dakite non botatakoak diren. Horrelako ekintza batek herritarren osasunean eduki dezakeen arriskuaz ohartarazi du Zarrabeitiak.

“Gure filosofia, birziklapenerako kontainerrak ahalik eta leku gehienetan egotea da, baina ez badira ondo erabiltzen, kendu egin beharko ditugu azkenean”, esan du kezkatuta Zarrabeitiak. Herritarren batek animaliak bota gura baditu, Base Gorrira (944 465 297) deitzeko eskatu du.

SOLDATA GORDINAK

	DURANGO - EAJ Aitziber irigoras 73.000€
	ZORNOTZA - EAJ Andoni Agirrebeitia 67.000€
	ABADIÑO - AI Jose Luis Navarro 57.000€
	IURRETA - EAJ Iñaki Totorikaguen 55.000€
	BERRIZ - EAJ Orlan Isoird 51.000€
	MALLABIA - EAJ Igor Agirre 50.000€
	ZALDIBAR - EH Bildu Arantza Baigorri 45.000€
	ATXONDO - EH Bildu David Cobos 23.800€ (garbi)
	IZURTZA - EH Bildu Lorea Muñoz 21.000€ (%50ean)
	MAÑARIA - EH Bildu Endika Jaio 21.000€ (%73an)
	GARAI - HT Gontzal Sarrigoitia 18.600€ (%40an)
	ELORRIO - EH Bildu Idoia Buruaga Zehazteko
	OTXANDIO - EH Bildu Urtzi Armendariz Zehazteko

Durangaldeko Gazte Martxa antolatu dute IAK eta Ernaik

DURANGALDEA M.O.

Ikasle Abertzaleak eta Ernai gazte erakundeek Durangaldeko Gazte Martxa antolatu dute uztailaren 29, 30 eta 31rako. Zornotzan hasiko dira, eta Elorriorainoko ibilbidea oinez egingo dute, eta tartean hainbat ekintza egiteko aprobetxatuko dute, kontzertuak eta berbaldiak, esate baterako. “Burujaitezaren aldeko gazteak, hau da, indibidualki zein kolektiboki gure etorkizuna

Tartean hainbat ekintza egiteko aprobetxatuko dute: kontzertuak eta berbaldiak, esate baterako

erabakitzearen aldeko gazteak, batzea da asmoa”, esan dute deitzaileek prentsa ohar bidez.

Gazte Martxan parte hartu ahal izateko tiketak salgai dauke dagoeneko, 10 euroan, Durangoko Intxaurren, Elorrioko Portalekuan, Zaldibarko Casteten, Zornotzako Belatzikietan eta Abadiñoko Abarketeruenean.



Kontainerretan agertutakoa, Zornotzako fabrikan.

hitz

#gomendioak

artekalea, 14 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
MANARIA,
HARRIZKO HERRIA
Txelu Angoitia (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT
MUSU BAT HARTZ
TXIKIRENTZAT
Holmelund Minarik
eta Sendak (2015)

MUSIKA
THIS IS
ALL YOURS
Alt-J (2014)

Durangaldeko Baserritarren Elkartea


Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



RENAULT
Energie del futuro

Dit en wijkte bilgalek espacio abala behar zue pete e nareyndege

GAURSA OCASIÓN



ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

For the home educator, this is a helpful guide to help you understand the state's requirements for home education. The guide also provides information on the various options available to you for home education. The guide is available in both English and Spanish. For more information, please contact the Home Education Center at 1-800-368-3683.



RENAULT OCASIÓN

ZEPER ZENIKE EMBAFO HONHELESO BULO BATEBGAUK

GALURSA

Arrondi, L. Tel: 541120 55 10 RU+RFA www.gnurse.com

Pinondo baztertu, eta txosnagunea Landako Gunean gura du udalak

Gobernu taldeak martitzenean erabaki gura du aurtengo kokalekua zein izango den

DURANGO Markel Onaindia Aurreko urte askotan lez, txosnagunearen kokapenaren *ku-lebroia* martxan dago. Izan ere, EAJren eta PSE-EEren gobernu taldeak Pinondo baztertu du, eta beste leku bat atera du mahai gainera: Landako Gunea. Atzo arratsaldean ziren batzar-
tzeakoak Txosna Batzordeko kideekin, ideia aurkezteko, eta

datorren martitzenean hartuko dute erabakia udaleko batzordean. Hori da gobernu taldearen asmoa, EAJko Iker Ocejá zinegotziak azaldu duenez. Txosna Batzordeak ez du oraindik iritzirik eman publikoki, baina sarritan esan izan du leku naturala Pinondo dela. Bestela, Alde Zaharretik gertu egotea eskatu izan du.

la urtero inprobisatzen 2011n, errotazio sistema berritu, eta Alde Zaharraren inguruko lekuak aztertzea adostu zuten udalak eta Txosna Batzordeak, urterik urtera Pinondogaz txandakatzeko. Baina geroztik udalak ez du leku finkorik topatu, eta ia urtero inprobisatu du. 2012an, Kurutziaga kalean ipini zuten txosnagunea, 2013an

Pinondon kokatu zuten, eta iaz errepikatu egin zuten, ez zutela alternatibarik lortu. Aurtun berriro han ipintzea “gehiegizkoa” dela uste du Ocejak: “Auzokideek haserre agertu dute, eta arrazoiagaz, gainera”.

Amilibian, “diru asko”

Udaleko teknikari talde batek Kurutziaga, Tabira, Galtzaretza, Zumar eta Amilibiako eremuak ere aztertu ditu. Baina ez dituzte onartu. Kurutziagan anbulantzia bategaz arazoa egon zen 2012an, Tabira urrun dago, Galtzaretza ia Pinondo da, Txosna Batzordeak ez du Zumar nahi, eta Amilibiako eremuan obra egin beharko litzateke. Obrarako “diru asko” behar da, Ocejaren esanetan. Lurra dagoen moduan, garbiketa makinak ezin ei dira han sartu, eta sartzeko modu bakarra oholtza bat ipintzea litzateke. Zinegotziak dioenez, udal teknikarien ustez, Landako Gunea da aukera onena.

Erabakia ahalik eta lasterren hartzeko asmoa dutela azaldu du Ocejak, Txosna Batzordearen eta udalaren egitarauak ez baldintzatzeko. Aurtengo San Fausto jaietarako konponbide bat behar dute, baina, akordio bat lortu ezean, txosnagunearen gaineko eztabaidak bizirik jarraituko du hurrengo urteetan.

Udako argazkien lehiaketa antolatu dute liburutegiak eta Ilargi taldeak

ZALDIBAR Itsaso Esteban *Selfie*-rik (autorretraturik) onena, eta liburutegiak, liburuak edo irakurketa gaitzat dituen argazki onena sarituko dituzte Zaldibarko udako argazki lehiaketaren bosgarren edizioan. Udal liburutegiak eta Ilargi elkarteak bultzaturiko ekimena da lehiaketa, eta 100 euroko bi sari emango dituzte: bata, *selfie*-rik onenari, eta, bestea, liburutegiekin lotura duen argazkirik onenari.

JPEG formatuan aurkeztu beharko dira koloretako zein zuri-beltzeko argazkiak. Irailaren 15era arte bidali ahaliko dira argazkiak *liburutegia@zaldibar.org* helbide elektronikora edo 688 630 885 Whatsapp zenbakira. Gainera, egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia, argazkiaren izenburua eta argazkia egin den tokia zein diren zehaztu beharko da.

Ilargi argazki taldeko kideek osaturiko epaimahaiak erabakiko du 100 euroko sari biak nori eman.



Iaz, Pinondoko txosnagunean hartutako irudi bat.

‘Udan ere jantzi betaurreko moreak’ ekimena, Ernairen eskutik

ABADIÑO I.E.

Genero ikuspegiaren inguruko gogoeta egiten eta eztabaidatzen abiatu zuten, uztailaren 6an, Abadiñoko Ernaik uztailarako eta abuzturako antolatu duen ekimen feminista. Film baten emanaldia eta osteko tertulia ere egin zituzten.

Atxarten mural bat margotzeko eta egun-pasa egiteko hitzordua ipini dute, abuztuaren 5erako

Uztailaren 23rako eta abuztuaren 5erako beste bi hitzordu jasotzen ditu *Udan ere jantzi betaurreko moreak!* leloa daukan Abadiñoko Ernai gazte antolakundearen ekimen horrek.

Batetik, datorren eguenerako, uztailaren 23rako, triki-pintxo-pote morea eta kontzertua antolatu dituzte gazte abadiñarrak. Bestetik, Atxarten mural bat margotzeko eta egun-pasa egiteko hitzordua ere ipini dute Ernai antolakundeko kideek abuztuaren 5erako.

Ludotekarako hezitzaile baten bila dabil Txatxilipurdi

OTXANDIO J. Derteano

Otxandioko ludoteka kudeatzen eta dinamizatzen duen Txatxilipurdi elkarteak ludotekan lan egingo duen hezitzaile baten bila dabil. Jakinarazi duenez, urritik aurrera hasiko litzateke lanean, eta bere lane-
gunak eta orduak astelehenetik eguenera, 17:00etatik 19:00etara, izango lirateke. Hautatuak formazioa jasoko du irailean.

Izena emateko epea uztailaren 22ra artekoa da, eta helbide elektronikoa honetan egin behar da: *idazkaritza@txatxilipurdi.com*. Gero, izena emandakoekin elkarrizketak egingo dituzte.

Lana nori eman erabakitzerako orduan, hainbat alderdi hartuko dituzte kontuan. Esaterako, Otxandiokoa izatea lehetsiko dute. Horregaz batera, aisialdian duen esperientzia zein den eta zer ikasketa dituen hartuko dituzte aintzat: adibidez, Gizarte Hezkuntza Gradua izatea edo heziketaren zein gizarte zientzien arloan erdi zein goi mailako beste titulazioen bat (Pedagogia edo Psikologia, esaterako) izatea, eta monitore titulazioa edukitzea.

Santa Maña eguna ospatuko dute Arriandin

IURRETA Aitziber Basauri

Jai eguna, Santa Maña eguna, dute zapatua Arriandi auzoan. Meza egongo da 11:30ean, eta, ondoren, Arriandiko dantzariak saioa eskainiko dute. Usadioari eutsiz, hurreratuko diren artean gozokiak, tortillak eta karramarroak banatuko dituzte gero, eta edariak ere bai.

Santa Mañako 38. Tortilla Txapelketa egongo da ondoren –osagaiak eta ikatza Jai Batzordeak ipiniko ditu–; bikoteko

10 euro ordaindu behar dira. Horretaz gainera, 31. Igel Txapelketa ere jokatu dute, eta parte hartzeko 3 euro ordaindu behar dira.

Amezketaren eskolan jarraituko du jai giroak arratsaldean. 47. Briska Txapelketa hasiko da 18:00etan (6 euro bikoteko), eta, 19:00etan, Gorriti eta bere animaliak egongo dira bertan. Arriandi jatetxean, herri afaria izango dute, 21:30ean, eguna amaitzeko.

Ikastaroa, landare osasunerako produktuak erabili ahal izateko

IZURTZA Joseba Derteano

Bizkaiko Foru Aldundiak landare-osasunerako produktuen erabilpena kontrolatzeko neurriak hartuko ditu. Azaroaren 26tik aurrera mota horretako produktu gehienak erabiltzeko txartel berezi bat beharko da, eta txartel hori lortzeko 25 orduko ikastaro bat egin beharra dago. Mañariko Udala prest dago ikastaro hori irailean edo

urrian antolatzeko, eta deialdia Mañarira eta Izurtzara zabaldu du. Izurtzan, uztailaren 20a baino lehen egin behar da izenematea, udaletxean. Pertsonen osasunean zein ingurumenean sortu dezaketen arriskua murriztu gura du Aldundiak araudi honeguz. Araudiak nekazaritza arloko ekintzei (laborantza zein basoko oinarritzako ekoizpe-
nak) zein bestelakoei (gune berdeak, ortu txikiak...) eragiten die. Txartel barik, profesionalak ez direnek toxikotasun baxuko produktuak bakarrik erosi ahal-
ko dituzte, eta gaur egun merkatu-
tuan dauden produktu gehienak erabilera profesionalekoak dira.

Herri Garapen Batzordea sortu dute udalean

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak osatu ditu datozen lau urteetarako batzordeak, osoko bilkuran onartu eta gero. Hiru batzorde bakarrik erabiliko dituzte udaleko gestioa bideratzeko, eta nabarmen-
tzekoa da horietako bat sortu berria dela: Herri Garapen Batzordea. Ogasunaren inguruko izango da beste batzordeetako bat, eta Kultura, Kirola eta Euskara Batzordea izango da hirugarrena.

Endika Jaio alkateak adierazi duenez, adibidez, hirigintza eta enplegua moduko arlo batzuk sartuko dituzte Herri Garapeneko Batzordean. Mañariko etorkizuneko garapena aztertzea izango du batzorde horrek helburu.

Udalaz apartekoak

Bestalde, udalaz aparteko erakundeetan Endika Jaio izango da ordezkaria, bi erakundetatan izan ezik. Haurreskolan, Ismene Uriarte egongo da, eta Ueman, berriz, Ainara Areitio. Amankomunazgoan, Jaiok eta Jabier Arteagak izango dute herria ordezkatzeko erantzukizuna.



JATETXE GIDA

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gaueetan itxita.



ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€

bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.

75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com



ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



ÑAM!



IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.

Gure upategian egindako sagardoa.

Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi pertsonarentzako menua zozkatuko dugu

Nora joango da Kamele Gisasola datozen egunetan?

Zozketaren irabazlea: **Gaizka Elexpe** zorionak!

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE ON!

Garamenditar Agustin musika eskolak jaurtiko du txupinazoa



Martitzenean aurkeztu zituzten Elorrioko Ferixa Nausikoetako jaiak.

ELORRIO Jone Guenetxea Elorrioko Ferixa Nausikoetako jaiak aurkeztu dituzte asteon. Aurtengo jaiak musikagaz lotura berezia izango dute. Izan ere, aurten 25. urteurrena ospatuko

duen Garamenditar Agustin musika eskolako kideak izango dira txupinazoa jaurtiko dutenak. Rosa Azkarate musika eskolako zuzendaria da duela 21 urtetik, eta txupinazoa jaurti-

tzea “ilusio handiz” hartu dute la aitortu du: “Gutaz gogoratzea ohorea da”. Udaletxeko balkoitik txupinazoa jaurtitzeko unea sorpresaz betea egongo dela aurreratu du Azkaratek.

Aurtengo erronka nagusia aurrekontu murriztuari aurre egitea izan dela aitortu du Idoia Buruaga alkateak. Hala ere, programatzaileek eta Jai Batzordeak euren lana “primeran” bete dutela esan du. Ildo horretatik, ekitaldi herrikoia lehenetsiko dituztela gaineratu du. Ekitaldien artean, Elorrioko II. Artzain Txakur Txapelketa lehenengo zapatuan, irailak 5, izango dela nabarmendu du Buruagak. Tradizioz betetako ekitaldiek ere ez dute hutsik egingo: Sukalki Egunak, danborradak eta erromeriak, besteak beste.

Feriari buruzko kartela

Maialen Arregi elorriarraren kartela izango da aurtengo jaiak iragarriko dituenak. Kartelaren sorkuntzaileak feriarri keinu bat egitea izan du helburu. “Base-rritarrek urtean jasotako uza ekartzen dute azokara, eta guk uza oparo hori jaso egiten dugu. Horrela, jaietako hainbat elementu zaku batean jaso ditut”. Arregik sari hau irabazten duen bigarren aldia da hau.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



Koherentziaren ñabardurak

Hau da nire lehenengo aukera maiatzaren 24az geroztik leihon honetatik zuengana hurreratzeko. Etorri ziren udal hauteskundeak eta joan be joan ziren. Eta gure herrian, barriz be, EAJk irabazi ebezan (*oinguen be bai*). Eskerrik asko, Durango! Gure ahalegin guztia jarriko dogu, betiko legeaz, herritarren arazoei konponbideak topatzeko. Guretzat pertsona da ardatza. Eta gure tresnarik baliotsuena koherentzia da: esandakoa bete egiten dogu. Ekinez egin. Badakigu jokabide hori ez dagoela modan, ez dala egunerokoa beste alderdietako batzuen artean. EAJrentzat koherentzia jarduteko estiloa da. Eta durangarrok argi eduki dabe horixe berori.

Beste legealdi bat hasi eta berehala izan dogu koherentziaren aldeko apustua egiteko unea: liberazioak. 2007tik aurrera beti mahaigaineratu izan dogu proposamen berbera: talde politiko bakoitzak soldata duineko liberatu bat. Ez jaku guri okurritu; Eudelek gomendatutako proposamena da eta guk, koherentziak, gurea egiten dogu. Gainerako alderdiek zer? EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak soldadak murrizteko edota liberatuen kopurua gitxitzeko proposamenak egin ebezan (bakoitzak berea). Baina kontua ez da hementxe amaitzen. Eudelen proposamenak aurrera egin eban gainerako talde politikoen botoekaz, eta liberatuak izendatzeko unea... hau da marka! Bai EH Bilduk baita Herriaren Eskubideak ere gure proposamena eurenaganatu dabe soldataren murrizketarik egin barik, beraz, liberazioaren kopurua oso-osorik kobratuko dabe. Koherentziaren ñabardurak izango dira...

Xeber Zubiaga aske geratu zen astelehenean

ELORRIO Markel Onaindia Xeber Zubiaga preso politiko elorriarra Valladolideko kartzelatik irten zen, astelehen goizean, zortzi urteko zigorra bete ostean. Arratsaldean heldu zen herrira, eta 20:00etan harrera egin zioten hainbat herritarrek.

Zubiaga 2004an atxilotu zuen Ertzaintzak, 2000. urtean Donostian izandako kale istilu batzuetan parte hartzea egotzita. Andoni Zengotita-bengoa, Txomin Lesende eta Arkaitz Bellon -iaz espetxean hildakoa- atxilotu zituzten gau horretan, eta auzi horregaz lotuta etorri zen Zubiagaren atxiloketa. 2005eko otsailean fidantzapean irten zen libre. Gero, 2007an egin zioten epaiketa, eta zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zioten.


Merkatariek estreinatuko dute probalekuko lur berria

Karrajua estali dute, gunearen erabilera hobetzeko

BERRIZ Amaia Ugalde Gaur, 10:00etatik 20:00etara egingo dute Aukeren Azoka Berrizko merkatariek. Produktuak ohi baino merkeago salduko dituzte, probaleku eraberrituan. Izan ere, azken asteotan karrajua estaltzen ibili dira, lurra erosoago izan dadin aisialdirako zein herriko taldeek egiten dituzten

jardueretarako. Jarri duten lurra probak dauden egunetan kentzeko modukoa da.

Obren helburuetako bat probalekua jolasarako gune estalia izatea da. Lurra lau da orain, baina ez oztopo gabea: tartean hainbat alturatako egiturak jarri dituzte, baloiagaz gune guztia okupatu dadila saihesteko.



Aurrekontu parte-hartzaileen batzarretan irteendako ideia da probalekukoa.

Serbiako dantzak Ama Maturanaren egunean

BERRIZ A.U.

Mesedeetako komentuan jai giro berezia izango dute uztailaren 23an, Margarita Maturana Amaren egunean. Mesedeetako misiolarien fundatzaileen omenez, ospakizun berezia egiten dute urtero, bere heriotzaren urteurrenean. Aurten, museorako bisita gidatuak prestatu dituzte goizerako, eta, arratsaldean, Berrizko San Lorentzo dantza taldearen eta Serbiako Akud Branko Krsmanovia taldearen dantza emanaldiak egongo dira.

Museoko bisitak 10:00etan eta 11:45ean egingo dituzte. Doakoak dira, baina komeni da 946 225 530 zenbakira deitzea. 17:00etan, meza izango dute. Gero, pintxoak banatuko dituzte, eta 19:30ean hasiko dira dantza emanaldiak.

Chimeneas
Cerámicas MACOBER
Sanitarios

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Udalaren etxebizitzak errentan emateko prozesua hasi dute

Arrazolan lau etxebizitza ditu udalak; interesatuek uztailaren 24ra artekoa epea dute izena mateko



Udalaren etxebizitzak dauden eraikina, Arrazolan.

ATXONDO Joseba Derteano Atxondoko Udalak Arrazolan dituen lau etxebizitza errentan emateko prozedura hasi du: logela bakarrek bi (42 m²), bi logelako bat (65 m²) eta hiru logelako beste bat (88 m²). Bizileku horiek errentan hartzeko zerrendan egon gura duenak uztailaren 24ra arteko epea du udaletxeko eskatzaileen erregistroan izen-ematea egiteko.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak zein bizilekuak bantzeko prozedura Alokairuko Etxeen Araudiak jasotzen ditu, eta gura duenak udalean eskuratu dezake dokumentua.

Izen-emate epean aurkeztutako eskari guztiak aztertu ondoren, behin-behineko zerrenda onartu, eta udaletxeko iragarki taulan zein udalaren

webgunean argitaratuko dute zerrenda, hamabost eguneko epean. Gero, errekursoak ebatzi ostean, behin betiko zerrenda osatuko dute. Ondoren, bizilekuen esleipena notario aurreko zozketa bidez egingo dute.

Onuradunek bete beharreko baldintzen artean daude adinez nagusi eta emantzipatua izatea, etxe baten beharra izatea, zerrendarako izena ematen den unean Atxondon erroldatuta egotea urtebeteko gutxieneko antzinatasunagaz, gutxieneko eta gehieneko diru sarreraren barruan egotea, eta errentamendu-kontratua gauzatzea. Baldintza horietako salbuespenak araudian jasota daude.

Errentamendu-kontratuak bost urteko eperako egingo dituzte, eta urtebetetik urtebetera luzatzeko aukera dago.

Lau umegaz, Haurreskola zabalik mantenduko dute

Bi ume matrikulatuz gero, ixteko arriskuan egon da

MALLABIA Jone Guenetxea Mallabiko Haurreskolan egoera larria bizi izan dute, matrikulazio epean bi umek bakarrik eman zutelako izena. Haurreskolak Partzuergoak, berriz, hiru umeko kopuru minimoa ezartzen du Haurreskola zabalik mantentzeko.

Udalak ume gehiago inskribatzeko egindako ahaleginaren ostean, ume bi gehiago matrikulatu dira 0-2 urteko gelan. Izan ere, epez kanpo izen-emateko aukera eman dute. Beraz, datorren ikasturtean, Haurreskolak ateak zabalik izango ditu.

Udaleku “zoragarriak”

Gaur amaitu dituzte Mallabiko udalekuak, eta Ane Loiola hezitzaileak balorazio oso ona egin du. “Dena zoragarri joan da, eta, gainera, eguraldiak ere lagundu du”. Udalekuetako 50 plazak bete egin dira aurten. 4 eta 14 urte arteko umeak eta gazteak lau taldetan banatu dituzte, adinaren arabera.

Azken hiru asteotan egoitza nagusia eskoletan izan badute ere, irteera ugari egin dituzte. Berrizko igerilekuetara eta Oñatiko (Gipuzkoa) kobazuloetara joan dira, besteak beste.

Jaietako bazkarirako izen-ematea, 26ra arte

GARAI Markel Onaindia Aurten Garaiko jaietan, abuztuaren 1ean egingo dute herri bazkaria, eta bertan parte hartu gura dutenek izena eman ahal dute dagoeneko. Inskripzioa uztailaren 26ra arte egongo da martxan.

Abuztuaren 1a zapatua denez, jaien amaiera atzeratzea erabaki dute Trumoitte elkarteak.

Bazkarian parte hartu nahi dutenek udaletxean eman behar dute izena, 946 816 393 telefonora deituta. 16 urtetik beherakoen txartelak 10 euro balioko du, eta helduen txartela 20 euroan ipini dute salgai.

Jaien azken egunean izango da bazkaria. Normalean, uztailaren 31n amaitzen dira jaiak, baina aurten, abuztuaren 1a zapatua denez, jaien amaiera atzeratzea erabaki dute Trumoitte kultur elkarteak. Horrela, bazkaria ere egun horretan egingo dute, aste barruan beharrean.

> DURANGALDEA ASTEON

Mugikortasunari buruzko lehiaketa

DURANGO > Irailean izango den Mugikortasun Asteari begira antolatu dute Bizikletarte, mugikortasun jasagarriari loturiko adierazpen artistikoen lehiaketa. Abuztuaren 29ra arte, durangokomugikortasunastea@gmail.com helbide elektronikoa jasoko dituzte proposamenak, eta ideia onenak 700 euroko saria jasoko du.

Gaztetxeko kale futbol txapelketa

ELORRIO > Gaur eta bihar egingo dute Elorrioko gaztetxeak antolatzen duen kale futbol txapelketa. Ekimenak hamar urte bete ditu aurten, eta txapelketan sortu izan den lehiakortasunari aurre egin eta berdintasuna bultzatzeko helburuagaz, aurten, norbanako izen-ematea egin dute, eta zozketa bidez osatu dituzte taldeak.

Hontza museoa udan ere zabalik

MAÑARIA > Mañariako natur zientzien Hontza museoa udan ere zabalik izango dela jakinarazi dute arduradunek. Ohiko ordutegiagaz jardungo dira udan ere. Azaroan zabaldu zuten museoa, eta, besteak beste, www.hontzamuseoa.eus webgunea atontzen ibili dira azken hilabeteotan, eta ikusgai dago.

Iritzia

Hezitzaile magikoei: eskerrik asko!

Eskerrak emateko modu asko daudela bagenekien, baina laguntzeko, ilusionatzeko, motibatzeke, amesteko... era asko daudela erakutsi diguzue. Zuen ahaleginari eta inplikazioari esker ehunka ume eta gazte uda zoragarri bat bizitzeko aukera izan dute. Izan dira korsario, espazioan bidaiari, sukaldaritzaz sortzailearen aitzindari, historiaurreko margolari, urpeko arrain txiki... Magia egiten dakizue eta mundu magiko bat eraiki duzue ekainetik uztailera bitartean.

Erakutsi diguzue ume eta gazte guztiek daukatela tokia udako mundu magikoan, anitzak garelako eta hala maite gaituzuela, denok izan gaitezkeela izan gura duguna, mundua euskarazkoa dela, gauza txikiekin gauza handiak eraiki daitezkeela...

Eskerrik asko bene-benetan hezitzaile talde magiko horri, zuek bakoitzari. Beste behin, urte osoan egindako lanak udan izan duen arrakasta zuei esker izan delako.

Maite Berriozaba, Barbaro euskara elkarte (Durango)

Gutuna

ANBOTOk eskaintzen didan atal hau aprobe txatu nahi dut, zuen baliabide guztiekin, nire egoeratik kezkatu zaretenoi eta gertatutako salatu duzuenoi bihotz-bihotzez eskerrak emateko. Jakingo duzuenez, ekainaren 9an, Badajozeko Infanta Cristina ospitalean mingainean neukan tumore txar bat kentzeko ebakuntza egin zidaten. Mediku taldearen esanetan, 12 orduko ebakuntza garrantzi eta zailtasun handikoa zen. Horregatik, ebakuntza baino 24 ordu lehenago ingresatu ninduten. Jakingo duzuenez, teorikoki, ebakuntzaren prestaketarako 24 ordu horietan poliziarengandik jasandako tratua txarrak salatu nituen. Zuetako askok, ordea, ez duzue jakingo hain handia eta basatia izan zela jasan nuen presioa, psikologikoki suntsituta utzi ninduela. Iluntzean, hain jota nengoen, handik ez nintzela irtengo pentsatu nuen. Nuen indar gutxia burua ez galtzeko erabili behar izan nuen. Oso-oso gogorra izan zen, nire bizitzan bizi

izan dudana momenturik okerrera. Julik kontatu zidan Durango mobilizatzen ari zela, nire egoera salatzen ari zirela, salaketa horiek Euskal Herritik zehar zabaltzen ari zirela, nire konfiantzazko medikuak niretzako tratua duina eskatzen ari zirela, nire abokatuak ere berdina, baita Amaier ere Madrilen... Julik behin eta berriz esaten zidan solairura igotzen nindutenean egoera aldatu egingo zela. Beraiek, ospitalean, tratua hobea igartzen zuten dagoeneko. Eta horrela izan zen, bai, tratua aldatu egin zen. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuet, zuei guztiei esker Polizia Nazionalaren jarrerak 180 graduko bira eman zuelako. Infernuan egotetik argia ikustera pasa nintzen, eta, pixkanaka-pixkanaka, sartu nintzen zulotik ateratzen hasi nintzen. Gaur egun, hiru aste pasa eta gero gaintitzen banabil ere, zaila egiten zait oraindik gertatukoaz emozionatu gabe hitz egitea. Bukatzeko, berriz ere, bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Gorka Fraile Iturralde (Badajozeko kartzelatik)



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Iñigo Murua | Venezuelako chaima indigenekin bizi da | Elorrio, 1984



“Indigenek aurrera egitea zailtzen du egoera ekonomikoak eta politikoak”

Venezuelako chaima indigenei laguntzeko elkartasun kanpaina abiatu dute Elorrioren

> BERBAZ Aitziber Basauri

Venezuelako Monagas Estatuko Caripe herrian bizi da Iñigo Murua urtearen zati handi batean. Herri Indigenen Ministerioan lan egiten duen chaima indigena du emaztea, eta, haren bitartez, indigenen errealitatea ezagutzeko aukera izan du. Chaima indigenen kultura sustatzeko eta dituzten arazoei aurre egiteko lan egiten duen Asochaica (Asociación Chaima Caripe) elkartearen ere badabil Murua. Caripeko komunitate indigenari laguntzeko kanpaina solidarioa abiatu zuen ekainean, Elorrioren, Santa Ana komentuko ama domingotarrekin.

Zer egoera ezagutu duzu Venezuelaren?

Egoera latza bizi dute. Ez dute botikarik herrialde osoan, are gutxiago komunitate indigenetan. Guretzat txikikeriak izan daitezkeen hainbat arazo ere badituzte: etorri aurretik, maiatzean, komunitate indigena batean, hiru egunez izan zuten etxean hildako baten gorpua, lur eman ezinda. Asochaicaren bitartez lortu zuten hilkutxa. Askok botika bila ere joaten dira. Elorriora nentorrela-eta, lagundu ahal izateko txosten bat eskatu nien: Chaima indigenak nortzuk diren eta bizi duten egoera zein den jaso zituzten txostenean.

Hori oinarri hartuta, elkartasun kanpaina bat abiatu zenuen ekainean, Elorrioren.

Horrela da. Ikastetxe guztietara jo dugu eskola materiala batzeko; Venezuelaren ez da erraza hori lortzea, eta gutxiago indigenentzat. Gainera, oso garestia da. Botikak lortzeko, berriz, Elorrioko bi farmazietara jo dugu; indigenek eurek eskatutako botiken zerrenda utzi dugu, herriarrek jakin dezaten zer behar duten.

Kanpainarako Santa Ana komentuko ama domingotarren laguntza izan duzu. Bai. Askok ez dakiten arren, otoitz egiteaz eta pastelak egiteaz gain, isil-isilean lan asko egiten dute beste herrialde batzuetan; Afrikan, batez ere. Ikasturtea amaitu den arren, Santa Ana eraman daiteke oraindik ikas materiala. Uztailearen 31 bitartean dago kanpaina martxan.

Nola doa kanpaina?

Batutakoa asko edo gutxi izan, ni konforme nago, batutakoa gutxi bada ere, han oso baliagarria izango delako. Gainera, gaur egungo egoera ez da onena. Eskola materiala batu da botikak baino gehiago, baina erantzunagaz pozik nago. Lagundu duten horien artean inorenagan kontzientzia sortu bada, pozik nago!

Kontzientzia sortzea?

Ekitaldi batean, indigenei eta kolonizazioari buruzko eskuorri bat eman zidaten, *Saldando la deuda histórica* izenburukoa. Gogoeta eginarazi zidan. Guk ere badugu zor historiko hori. Elorrio ezaguna da bere jauregi eta eraikin ederrengatik, eta badakigu nondik datorren aberastasun hori guztia: Ameriketatik. Gure herria aberastu zen, bai, baina beste batzuen kontura. Espainiarrak eta europarrak heldu zirenean, guztiz zapaldu zituzten indigenak, eta euren hizkuntza desagertu egin zen. Hugo Chavezek aintzat hartu arte, indigenak guztiz zapalduta eta baztertuta egon dira Venezuelaren. Milaka hil zituzten militarrek, eta gaur egun ere indigena askok ez dute onartzen izaera hori, egoera aldatuz doan arren.

Aberatsak dira baliabide naturalen...

Munduko aberatsenetarikoa da Venezuela –petrolio, gasa...–, baina hartu-eman politiko-ekonomikoek asko zailtzen dute indigenek aurrera egitea. Gobernuak baditu zenbait ekimen *Gran Misión* izenekoak. Adibidez, *Gran Misión Vivienda*. Etxerik ez duen venezuelarrari etxebizitza ematen dio; indigenei ere bai. Nire emazteak horretan egiten du lan,

komunitate indigenetan dauden beharrek errolda bat egiten du, ministeriora bidaltzeko. Egoerak aztertu ostean, eta premien arabera, buztinezko etxea kendu, eta bizileku duin bat ematen die gobernuak. Ez dira pobreziatik irteten, baina pobrezia duintzen du. Indigenak orain dela milaka urte bezala bizi dira: sukalde barik, komun barik... Petrolioaren diruak eragiten du herritarrengan, bai, baina, nire ustez, ez behar lukeen beste.

Azpiegiturekin ere arazo larria dute.

Bai. 78 kilometroko errepidea du Caripek, eta bost komunitate lotzen ditu; lurrezko bideak dira, eta, euria denean, ez dago ibiltzerik. Hor ahalegin handiagoa egin beharko luke gobernuak. Nekazariak dira, kafea ekoizten dute, adibidez, eta ekoiztutakoagaz bizitzeko aukera izango lukete; osasun larrialdietarako ere onuragarria izango litzake. Garraio-bideak ere premiazkoak dira.

Eskolara joateko ere kilometro piloa.

Arlo horretan, El Palmar de Paraderon bi gelako eskola eta anbulatorioa eraikitzeko zozketa bat antolatu dugu. Mugitzeko zailen komunitate horretan dute; gainera, beste komunitateei ere zerbitzua emateko errazena delakoan gaude. 5.000 euro behar ditugu, eta 800 euroko balioa duen txartela zozkatuko dugu uztailearen 31n. Santa Ana komentuan eta saltoki laguntzaileetan daude txartelak salgai. Oraindik badago laguntzerik, eta Durangalde osora zabaldu gura dut deia. Horretarako inigo.murua@bizkaia.eu e-maila edo 675 652 221 telefonoa erabili daitezke.

Jone Erzilla Etxegibel | Durango, 1999 | Martin Gabiria Lejabarrieta | Durango, 1992

“Kontzertuetako emaitza ikusita, esfortzuak merezi izan duela argi daukagu”

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestran jotzeko hautatu dituzte Erzilla eta Gabiria

> MUSIKA Itsaso Esteban

Noiz jakin zenuten EIJO gazteen jazz orkestran parte hartzeko hautatuak izan zinetela?

Martin Gabiria: Urtarril hasieran esan ziguten hautatu gintuztela. Probak zeudela abenduan jakin genuen, eta unibertsitateko azterketak amaituta nitueenez, nire irakasleak eta biok pentsatu genuen hautaprobak aurkeztu behar nuela, batez ere probak zelakoak diren jakiteko. Nire maila zein den jakiteko aukera izan da; egia esan, ez nuen espero orkestran sartzerik.

Zelakoak izan ziren probak?

Jone Erzilla: Batetik, eurek emandako bi partituraren zati bana jo behar izan genuen hautaprobak, eta, bestetik, klaketa baten erritmora inprobisatu behar izan genuen.

Euskadiko hiru jazz jaialdietan jotzea da hautatuak izatearen sarietako bat, ezta? Zelako esperientzia izaten dabil?

M.G.: Bai, Getxon eta Gasteizen jo dugu, eta, uztailaren 22an, Donostian joko dugu. Gasteizen, gainera, Jim Snidero saxofonistagaz jotzeko aukera izan dugu.

Zelan hartu zaituzte publikoak?

M.G.: Harrera oso ona egin digu: emanaldi bietan bete dugu edukiera. Familiakoez gainera, hainbati galdetu diet kontzertuaren inguruan, eta guztiek esan didate gustura egon zirela. Beti dago hobetzeko tarte, baina sentsazio orokorra oso ona izan da.

Zer erreperitorio eskaintzen duzue kontzertuetan?

M.G.: Jazz klasikotik moder-

noagora doan erreperitorioa eskaintzen dugu; swing gehiago duten kantetarik hasi, eta Angel Unzu gitarristak konposatutako obra modernoago baterainoko bidea egiten dugu. Jazzaren zabaltasuna islatzen dugu.

J.E.: Hamar piezak osatzen dute, guztira, kontzertuetan eskaintzen dugun erreperitorioa.

Getxoko, Gasteizko eta Donostiako jaialdietako emanaldiak prestatzeko bost eguneko egonaldia egin duzue orkestrako 23 kideek Barrian (Araba). Zelakoak izan ziren egun horiek?

M.G.: Bost egunean zortzi orduz ehuneko ehuneko lan egitea gogorra den arren, oso gustura egon gara. Oso esperientzia positiboa izaten dabil, osotasunean. Urtarriletik, hilabetez zortzi orduko entsegu bat egin dugu, eta ekainean egin dugu bost eguneko egonaldi hori.

J.E.: Gogorra izan da, lan handia egin behar izan dugulako, baina merezi izan du: kontzertuetan ikusitako emaitzak merezi izan du esfortzua egin izana.

“*Uste dut gogoko ez baduzu, ezin duzula musikaren munduan aurrera egin*”

Beste taldekideengandik ikasteko aukera ere bada, ezta?

J.E.: Bai, asko ikasten dugu besteengandik. Kide asko oso onak dira, eta askok pentsatuta dute jazzeko goi mailako ikasketak egitea.

M.G.: Beste saxofonista batzuekin ez ezik, gitarristekin edo baxu-jotzaileekin berba egiteko aukera eskaini dit niri, esaterako. Oso aukera interesgarria da.

Zein da zuen instrumentuagaz egin duzuen ibilbidea?

J.E.: 8 urteagaz hasi nintzen tronpetak jotzen, eta, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan ibili ostean, kontserbatorioan



Martin Gabiriak 11 urte zituenetik jotzen du saxoa.

nabil orain, tronpetak klasikoko erdi mailako gradua egiten. Bosgarren maila egingo dut datorren urtean.

M.G.: Hamaikagarren edo hamabigarren urtea da, nire kasuan, saxoa jotzen dudala. Beti izan ditut gustuko jazz eta musika modernoa, baina Durango musika eskolan hasi nintzean oraindik ez zegoen aukera hori, eta klasikotik hasi nintzen. Erdi mailako gradua duela bi urte amaitu nuen.

Musikako goi mailako ikasketak egiteko asmorik baduzue?

M.G.: Bai, nire asmoa da aurten probak prestatzea, eta goi mailako saxo ikasketak egitea.

J.E.: Nik oraindik ez dakit zer egingo dudana. Batxilergoa egin behar dut lehenengo, eta aurrerago erabakiko dut.

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestraren etorkizunerako asmoak zeintzuk dira?

J.E.: Deialdi hau egin eta gazteen jazz orkestra hau sortu den lehenengo aldia izan da, baina, berez, urtero egingo da probetarako deialdia: urtero berriztuko dute taldea, hau da, urtero aldatuko du musikariz Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak.

Zer da zuentzat musika?

M.G.: Gozamenerako baliabide bat izan da beti. Uste dut, gustuko ez baduzu, ezin duzula arlo honetan aurrera egin; ez da bulgo batean lan egitearen parekoa. Jotzea gustatzen ez bazaizu, ez duzu aurrera egiten.

J.E.: Ordu asko praktikatu behar da, eta, batzuetan, oso nekagarria da, baina gustuko ez bagenu, ez genuke jarraituko.

Jazz musika ulertzeko zaila, konplikatua, dela esaten dute-nei zer erantzun zaien?

M.G.: Esango nieke, beste estilo batzuetan bezala, jazzean ere gauza sinpleak eta konplikatuak daudela: swing banda bat entzuten baduzu, segituan ulertzen duzu, eta piezen egiturak eta erritmoak errazak dira jarraitzeko... Baina, noski, badaude gauza askoz konplexuagoak ere. Edozelan ere, beste arlo batzuetan bezala, zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta gehiago zaletzen zara jazzagaz.

Gutxinaka joan zarete zaletzen?

J.E.: Bai, gogoan dut umea nintzeanean, aitak jazz ipintzen zuenean, aspergarri egiten zitzaidala. Orain, gero eta gehiago eta gusturago entzuten dut.



Jone Erzilla 8 urteagaz hasi zen tronpetak jotzen ikasten.

> ZINEMA Itsaso Esteban

Astelehenean ekingo diote Iratxe Mediavilla zuzendariak eta bere lantaldeak *Argi* film luzea grabatzeari, Elorrion. Filmazioa hiru asteak izatea aurreikusitako dute, eta, filmeko lokalizazio guztiak Elorrion daudenez, “herri osoa agertoki bihurtuko” dutela aurreratu du lantaldeak: “Zinema usaina edukiko du datozen hiru asteetan Elorriok, zinema giroa arnastu eta ia ukitu ere egin ahalko da”.

Filma gauzatu ahal izateko koordinatu beharreko arlo guztietan lanean ibili dira azken asteotan. Zinemagintzako sail bakoitza datozen egunetarako baliabideak prestatzen ibili da, eta “dena martxan” dute: dekoratuak, jantziak... *Argi* filma osatuko duten detaile guztiak prest dauzkate, astelehenean grabazioari ekiteko.

Astelehenera begira, urduritasuna eta “itomena” sentitzen dutela aitortu dute lantaldeko kideek. Baina horrelako proiektu handi bat abiatzean, hori ohikoa dela uste dute. “Suposatzen dugu lehenengo eguna anabasa



Besteak beste, dekoratuetan azken ukituak egiten ibili da lantaldea.

‘Argi’ filmaren grabaketa hasiko dute, astelehenean, Elorrion

Hiru aste filmazioa egitea aurreikusitako du Iratxe Mediavilla zuzendariak

handia izango dela”, azpimarratu du Mediavilla zuzendariak, “baina, lehenengo eguneko oztopoak gainditu ostean, urduri-

tasuna ere desagertzen joango dela uste dugu”.

1970eko hamarkadan kokaturiko istorioa da *Argi*. Itotzen

duen herritik alde egin guran protagonistak bizi duen barne gatazka kontatzen du filmak: lekuz kanpo sentitzen da.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea



Zoragarri

Lagun kuttun batek idatzi nuen testu bat irakurri, eta *zoragarri* berba erabili zuen. Egunotan pentsatzeko lain ukitu ninduen barrutik hitzak; zoratzeko modukoa, *zoragarria*. Harritzeko da *zoro* hitza egundo ez dela ontasunarekin lotu edo positiboki ulertu, *zoragarria*, aldiz, esanda bakarrik irribarrea bera ere ateratzeko kapaza da.

Erroari begiratuta ez ezik, orain aipatu ditudan ustezko esanahi kontrajarri horiei hordago, definizio baten zein bestearen alde eginda ere bi hitzok zaku berean sartu beharko genituzkeela uste dut. *Zoraa* dena txarra bada, gaizkilea, arraroa, ez fidatzekoa... *zoragarria*, lehen esan bezala zoratzeko gai dena, hura ere aurreko guzti hori sus-trai, enbor eta adarra da.

Zoragarria, ahoa betetzen duen hitza, ederra, liluratzen gaituena, finean, zorutzen gaituena, geure orbitatik ateratzea lortzen duena, errutina hausten duena, normaltasunaren lurralde idorreko mugetatik harantzagokoa.

Zoraa eta *zoragarria* bata bestea erditzen duten hitzak, berbetatik haratago ere bata besteari jaten ematen dioten esanahiak; *zoragarria* ederra den lege *zoraa* ere bai, zoroak egiten baitu *zoragarria* posible. Eta zer da, bada, *zoraa*? Normaltasunetik irteten dena, ustez beharko lukeen orbitatik ikusezinezko lekuetan barreiatzen den errealitate abstraktuduna.

Zoroek zorutzen gaituzte, zoratuta gaudenean *zoragarri* bihurtzen gara, eta umetan kristalezko pote gardenetan belar berdeekin gotortzen genituen kilkerren antzeko soinuak eginez zorotasuna hedatzen doa, guztiok zoratu eta lur idor-rak emankor eginez, *zoragarri*ak izateraino.

Datozen bi asteburuatarako, zazpi kultur emanaldi dakartza Musikairek

Egitarau erdia beteta, oraindik beste zazpi emanaldi izango dira Elorrion



Kukai dantza taldearen ‘Gelajauziak’ ikusteko aukera egongo da, domekan.

> MUSIKA

Tola jauregia eta plaza ikuslezu bete dira uztaileko asteburuetan, Elorrion, aire libreko kultur emanaldien Musikaire jaialdiaren eskaintzari esker. Asteburu honetako emanaldiekin programaturiko ikuskizunen erdia beteko du jaialdiak, eta uztailearen 26ra arte lau musika emanaldi, antzezlan laburrak eta dantza garaikidea izango dira gozagai, Elorrion.

Lariz jauregian izango dira asteburu honetako bi hitzordu musikalak. Gaur, Aziza Brahim saharauaren ahotsak hartuko du Elorrio, 22:30etik aurrera, eta bihar, Lariz jauregian, Xabier Aburruzagaren trikitiaren doinua izango da protagonista, bateria, baxua, biolina eta gita-

rra joko dituzten lau musikaririk lagunduta.

Domekan, aldiz, plazan eskainiko dute Kukai eta Lasala dantza taldeek emanaldia. Kukaik hogei minutu inguruko bere bi lan eskainiko ditu, 19:00etatik aurrera, Elorrioko plazan: *Sorbatza* eta *Gelajauziak*. Lasala konpainiak, oster, *Lauesku* izeneko ikuskizuna eskainiko du.

Elizpetik elizpera

Uztail hasieran elizpean hasi zen Musikaire jaialdia, eta leku horretan amaituko da. Jaialdi honen aniztasunaren isla diren beste hiru emanaldi izango dira datorren asteburuan ere: Hondurasko Aurelio musikaria eta bere taldea, eta Corizonas eta Oreka TX taldeak ariko dira.

Bestetik, uztailearen 26an, 19:00etan, antzerki lan laburrekin gozatu ahalko da, Casajara jauregian: Javier Arandaren, eta Pez Limbo eta Trino Teatro taldeen antzerki lan laburrak izango dira ikusgai.

**uda
kalean
bizi
2015
uztaila**



24 OSTIRALA 20:00

Manolo Alcántara

Rudo

ZIRKO-MUSIKA

Musika Eskolako parkea

euziarekin. Merkatu plaza



25 LARUNBATA 20:30

**Kubako Camagua
Durangoko Kriskitin**

Durangon Folk 2015

DANTZA

Santa Ana plaza

euziarekin. Andramaitiko elizpea

Uda honetan
**PLATERUEN
PLATERAK**

Bariku eta zapatu iluntzeetan
20:00etatik 23:00etara



JAIAK!

Garai+Mañaria+Mallabia
2015eko UZTAILA eta ABUZTUA



GARAI
MAÑARIA
MALLABIA

GARAIKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 24, barikua

19:30ean, Donien Atxa jartzea.
Ondoren, ezpata dantzarien saioa.
Jarraian, Lumagorriren oilasko pintxoak salgai.

22:30ean, DJ Bull.

UZTAILAK 25, zapatua SANTIAGO EGUNA

10:30ean, txistularien, dantzarien eta agintarien kalejira.

11:00etan, meza nagusia, San Migel elizan.
Ondoren, ohiko Santiagoren imajinaren prozesioa Elizabarriraino, apostoluari omenaldia eginez, agintariena eta 'Gernikako arbola' dantzatzuz.

Jarraian, ezpata dantzariak, herriko plazan.

18:30ean, erregelen erakustaldia.

23:00etan, Ezten Giro taldeagaz erromeria.

UZTAILAK 26, domeka SANTA ANA EGUNA

10:30ean, txistulariekin, dantzarekin eta agintariekin kalejira.

11:00etan, Elizabarrin, meza nagusia. Ondoren, bezperako ospakizunez osaturik, Santiagoren imajinaren prozesioa parrokiaraino.

Ondoren, ezpata dantzariak herriko plazan, eta, jarraian, ezkonduako andreen erregelak.

Jarraian, herriko trikitalariak poteoa alaitzen.

18:30ean, tortilla txapelketa. Partaideek ekarri beharko dute dena: sua, arrautzak, olio, kipula, patatak eta gatza.
 Sariak:
 1. 80€ eta garaikurra.
 2. 50€ eta xanpain botila bi.
 3. 30€ eta xanpain botila bi.

Ondoren, erromeria Obaneuke taldeagaz.

UZTAILAK 27, astelehena

16:00etan, pailazoak.

18:00etan, duatloi txikia.
 Ume bakoitzak bizikleta, kaskoa eta arropa erosoak ekarri beharko ditu.

UZTAILAK 28, martitzena

14:30ean, jubilatuen bazkaria.

18:00etan, berehalako briska txapelketa, plazan.
 Sariak:
 1. 80€ eta txapela.
 2. 50€.
 3. 30€.
 4. Xanpain botila bi.
 Izen-ematea: 10€ bikoteko.

UZTAILAK 29, eguaztena

18:00etan, berehalako mus txapelketa, plazan.
 Sariak:
 1. 80€ eta txapela.
 2. 50€.
 3. 30€.
 4. Xanpain botila bi.
 Izen-ematea: 10€ bikoteko.

UZTAILAK 30, eguaztena

18:00etan, pilota partiduak.

22:00etan, bertso saioa
 - Jon Maia
 - Julio Soto
 - Unai Agirre
 - Unai Iturriaga
 Gai-jartzailea: Eneko Abasolo 'Abarkas'.

Ondoren, Zirkinik Bez taldeagaz erromeria.

UZTAILAK 31, barikua SAN INAZIO EGUNA

11:00etan, meza, San Migel elizan.

Ondoren, dantzariak.

Jarraian, Durangaldeko Igel Txapelketa.
 Sariak:
 1. Pernila.
 2. Untxi bi.
 3. Gazta bat.
 Izen-ematea: 2€.

18:30ean, asto proben erakusketa
 1. Partiliku elkarte Zelai-alai hipika eskola.
 2. Maiora elkarte.
 3. Taberna Goieta (Mungia).
 4. Zabaleta anaiak.

Erakusketa biak kontuan harturik, sariak:
 1. 400€ eta manta, Jai Batzordeak emanda.
 2. 350€ eta garaikurra, Kimu loradendak emanda.
 3. 300€ eta garaikurra, Jokin Arregi Indusketak emanda.
 4. 275€ eta garaikurra, Juan Luis Pujana Igeltseritzak emanda.

22:30ean, erromeria Fan&GO taldeagaz.

24:00etan, errifaren zozketa.

Ondoren, txokolatea.

ABUZTUAK 1, zapatua

14:30ean, herri bazkaria.

Jarraian, erromeria Ansorregi taldeagaz.





Donien Atxa uztailaren 24an, barikua, jasoko dute.



Garaiko dantza taldearen jaietako saioa. Ibai Bengoa

DJ Bull, bost erromeria eta bertso saioak jaien harira

Jaien lehenengo eguneko gaua DJ Bull-en musikak girotuko du

> JAIK

Garaiko Santiago, Santa Ana eta San Inazio jaietako gauetan musikak protagonismo handia izango du lehenengo egunetik azkenera arte. Datorren bari-kuan, jaien lehenengo egunean, Irurako DJ Bullek musika estilo dantzarriak jarriko ditu bere ohiko graziak lagunduta. Abuztuaren 1eko azken egunean, oster, Ansozregi erromeria taldearen kantuekin amaituko dituzte aurtengo jaiak.

Bi kontzertu horien artean beste lau erromeria izango dira udaletxe ondoko plazan egokitutako agertokian. Jaietako lehenengo zapatuan, uztailaren 25ean, Debako Alaitz Eskudero, Maitane Unanuek eta Mi-

rari Alkortak osatutako Ezten Giro taldea izango da jaizaleak dantzan jarriko dituen. Domekan, Santa Ana egunean, berriz,

Jaietako bost erromerietako bat Zornotzako Zirkirik Bez taldeak eskainiko du, uztailaren 30ean

Gipuzkoako Obaneuke taldeak dantzarako gonbita luzatuko du. Gainera, Durangaldeko taldeen doinuak ere entzun ahal izango dira Garaiko jaietan; uztailaren 30an, Zornotzako Zirkirik Bez

taldeak bisitatuko du Garaiko oholtza. Musika eskaintzarekin amaitzeko, Aitor Amilibia, Aratz Olaizola, Eneritz Urrutia Mattin Ostolaza eta Ibai Zubizarreta zaraustarrek osatutako Fan&GO taldearen musikak San Inazio eguneko gaua girotuko du.

Bertso saioa

Uztailaren 30ean, eguaztena, 22:00etan, Zirkirik Bez taldearen erromeriaren aurretik, bertso saio batez gozatzeko aukera eskainiko dute: Eneko Abasolo *Abarkas* gai jartzaileretarraren aginduetara jardungo dute Jon Maia, Unai Iturriaga, Unai Agirre eta Julio Soto bertsolariak.

Udako egunak jai giroan gozatzeko gonbita, Garain

Uztailaren 24tik abuztuaren 1era ekitaldiz betetako bederatzi egun izango dira jaietan

> JAIK Joseba Derteano

Garaiko dantza taldeko dantzariak hanka bizkorak ez ezik, sorbalda sendoak ere badituzte, jaietan erakusten dutenez. Urtero-urtero Donien Atxa lepoan hartu, eta pilotalekutik plaza-rainoko bidea egiten dute, gero jaso, eta jaiari hasiera emateko. Ondoren, ezpata dantzarien saioa izaten da. Aurten, uztailaren 24an izango da, 19:30ean.

Gainera, Garaiko prozesioan ere parte hartzen dute dantzariak. Santiago egunean, meza-ren ostean, San Migel elizan dagoen Santiagoren irudia Elizabarriraino eramango dute prozesioan, agintariena eta *Gernikako arbola* dantzatzeko dituzten bitartean. Hurrengo egunean, kontrako bidea egingo dute, Santiagoren irudia berriro bere ohiko elizara eramateko.

Jaietan arrakasta izaten duen ekintzetako bat tortilla txapelketa izaten da. Eguraldi ona bada, plazan egingo dute, hilaren 26an; bestela, pilotalekuan. “Urteren batean, 50 tortilla inguru aurkeztu izan dituzte”, gogoratu du Ane Etxeita Jai Batzordeko kideak. Hiru sari banatuko dituzte: 80 euro irabazlearentzat, 50 bigarrenarentzat eta 30 hirugarrenarentzat.

Jai Batzordeak urtero errifa baten zozketa egiten du. Aurten,

uztailaren 31n, gaurdian egingo dute, eta honako sari hauek zotz egingo dituzte: Garaiko landetxean gaua, eta Aboiz jaietxean bazkaria edo afaria; Garaiko jaietxean bazkari edo afaria; eta Herriko jaietxean bazkaria edo afaria. Areatzako talasoterapia zentroko zirkuitua egiteko saria ere banatuko dute.

Aurten herri bazkaria jaien azken egunean egingo dute. 100-120 lagun batzen ditu urtero.

Garaiko Triatloi Taldeko kideek gazteentzako duatloia antolatu dute uztailaren 27rako, astelehena

Parte hartu gura dutenek udaletxean eman behar dute izena.

Duatloi txikia

Garaiko Triatloi Taldeak gazte-entzako duatloia antolatu du uztailaren 27rako, 18:00etan. Pilotaleku ondoan hasi eta amaituko da. Hainbat ibilbide osatu dituzte, gazteak adinaren arabera banatuko dituzte. Iazko lehenengo aldian 40-50 bat gaztetxok parte hartu zuten.



Zornotzako Zirkirik Bez taldea, zuzeneko emankizunean.



Fan&GO erromeria taldeko partaideak.

MAÑARIKO JAIEN EGITARAUA

ABUZTUAK 13, eguena

19:30ean, batukada Senegalgo Mlomp taldeagaz.

20:00etan, txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera.

21:30ean, herri afaria.

23:30ean, erromeria Gozategi taldeagaz.

ABUZTUAK 14, barikua

07:00etan, herri lanak: plazaren garbiketa; gero, hamarretakoa.

11:00etan, 'zumba' maratoia: umeentzat zein helduentzat.

11:30ean, umeentzako jokoak:

- Aurpegi margoketa
- Puzgarriak
- Igerilekua

Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, igerilekuaren ordeaz, ohe elastikoak egongo dira.

17:30ean, gazteentzako jokoak.

22:30ean, kontzertuak:

- Eskean Kristo
- Vendetta
- Skakeitan

ABUZTUAK 15, zapatua ANDRA MARI EGUNA

Oharra: Hontza museoaren sarrera doan izango da mañariarentzat, egun honetan.

07:00etan, herri lanak: plazaren garbiketa; gero, hamarretakoa.

10:00etan, kalejira txistulariekin.

11:00etan, meza, Kirikiño abesbatzagaz, eta dantzariak.

11:30ean, umentzako jokoak:

- Puzgarriak
- Ludoteka
- Wii bideo jokoak

13:00etan, herri kirolak: Inaxio Perurena harri-jasotzailea, eta Rekondo eta Mugerza aizkolariak.

16:00etan, umeentzako jokoak:

- Puzgarriak
- Ludoteka
- Wii bideo jokoak
- Bits jaia

Oharra: Bits jaia dela-eta, kontuan izan umeak busti egingo direla.

17:00etan, karabina jaurtiketa Ateneo Zinegetiko Mugarrak antolatuta.

18:00etan, herriko pilota finala.

20:30ean, txistorra-jana.

22:00etan, dantza alardea.

23:00etan, Mexikoko Mariachi Azteca taldea.

ABUZTUAK 16, domeka

SAN ROKE

Mozorro Eguna. Gaia: Apirileko feria

07:00etan, herri lanak: plazaren garbiketa; gero, hamarretakoa.

11:00etan, meza eta dantzariak.

12:00etatik **14:00**etara, paella txapelketa.

14:30ean, paellen aurkezpena eta sari banaketa.

18:00etan, briska txapelketa, Errose kultur etxean.

18:00etan, triki-poteoa.

18:00etan, Izurtzako dantzarien ekitaldia.

19:30ean, rebujito ordua, txosnan.

21:00etan, mozorroen sari banaketa.

21:30ean, erromeria Ezten Giro taldeagaz.

00:00etan, Pitxitxiri agurra.

07:00etan, herri lanak: plazaren garbiketa; gero, hamarretakoa.



Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!



MAÑARIKO UDALA

Gozategi eta Vendetta taldeek girotuko dituzte Mañariko jaiak

Abuztuaren 13an ekingo diete jaiet txupinazoagaz eta Pitxitxiren igoeragaz

> JAIK Jone Guenetxea

Abuztu erdialderako jai egitarau mamitsua prestatu dute Mañariko Andra Mari jaietarako. Abuztuaren 13an, Senegalgo Mlomp taldeak batukadaren erritmoagaz berotuko ditu motorrak, Mañarian. Ondoren, 20:00etan, udaletxeko balkoitik txupinazoa jaurtiko dute, eta, kanpai hotsen artean, jaietako maskota den Pitxitxi igoko dute. Ondoren, herri bazkarian batuko dira herritarrek. Jaietako lehenengo eguna behar den bezala amaitzeko, Gozategi taldearen erritmo dantzagarriek alaituko dute gaia.

‘Zumba’ maratokia

Mañarian, *zumba* ikastaroan parte hartu dute hainbat herritarrek ikasturte honetan, eta dantza estilo horrek harrera ona izan duela esan daiteke. Aste kulturalean erakustaldia egin zuten, eta *zumbagaz* zerikusia duen ekitaldi bat aurreikusi dute jaietarako. Abuztuaren 14an, barikua, *zumba* maratokia parte hartzeko aukera izango dute umeek zein helduek. Beraz, jaietan festa eta dantza uztartzen saiatuko dira mañariarrak.

Umeen gozagarri

Umeek ere izango dute jaietan gozatzeko aukera. Umeen jolasen artean, aurpegi margoketa,

puzgarriak eta igerilekua izango dituzte aukeratzeko. Udal arduradunek aurreratu dutenez, eguraldi txarra eginez gero, igerilekua beharrean ohe elastikoak jarriko dituzte. Zapatuan ere umeentzako jolasak izango dira, ludoteka eta Wii-rako bideo jokoekin. Arratsaldean, oster, puzgarriak eta bits jaia

**Abuztuaren 14an,
‘zumba’ maratokia
parte hartzeko aukera
izango dute umeek
zein helduek**

**Mozorro Egunerako
gaia ‘Apirileko feria’ da,
beraz, gai horregaz
lotutako moztarrok
eraman beharko dituzte**

gehituko zaizkie, beraz, umeek aldatzeko arropa eraman dezatela gomendatu dute. Zapatuan, Andra Mari egunez, meza izango da Kirikiño abesbatzagaz eta dantzariekin.

Gazteentzako jolasekin jarraituko du arratsaldean jaiak. Gauarako, berriz, kontzertu erakargarria prestatu dute: Eskean

Kristo, Vendetta eta Skakeitan taldeek erritmoz beteko dute Mañariko plaza.

Herri kirolek ere euren lekua izango dute aurtengo jaietan. Inaxio Perurena harri-jasotzaile leitzarrak erakustaldia eskainiko du. Beragaz batera, Rekondo eta Mugerza aizkolariek herri kirol proban parte hartuko dute.

Arratsaldean, Ateneo Zinegetiko Mugarra elkarteak karabina jaurtiketa prestatuko du. Herriko pilota finala eta dantza alardea ere izango dira. Eguna mariatxiekin amaituko dute Mañarian. Mariachi Azteca talde mexikarrak bere herrialdeko abesti eta doinuak hurreratuko ditu Mañarira.

‘Apirileko feria’

Abuztuaren 16a Mozorro Eguna izendatu dute. Aurtengo gaia *Apirileko feria* izango da. Beraz, herritarrek eta bertaratzen diren guztiek gai horregaz lotutako moztarrok eraman beharko dituzte soinean. Arratsaldean banatuko dituzte moztarrok onentzako sariak.

Erromeriagaz amaituko dute jaietako asteburu luzea. Ezten Giro taldea izango da jaiak itxi-ko dituen erromeria taldea. Azken urteotako tradizioari jarraituz, gauerdian, Pitxitxiren agurragaz amaituko dituzte jaiak era ofizialean.



Musika kontzertu eta erromeria ugari izango dira Mañariko jaietan.



Abuztuaren 15ean, dantza alardea egingo dute.



HERRI-TABER
EGUNEKO MENUA - PLATER KONBINATUAK - KAZUELATXOAK
OGITARTEKOAK - OTORDUAK ENKARGUZ
Herriko plaza. • Tel.: 946 200 278 • MAÑARIA



HARATEGIA - URDAITEGIA
BIZKARRA
BASERRIKO OKELA
TXORIZOAK ETA
ODOLOSTEAK
Tel.: 946 816 945 • Mug.: 615 781 247 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

JAVIER BIZKARRA GARRAIOAK



Karga erabilgarria | Andra Mari, 19-ID | Tel.: 659 178 332
18.000 kg | Mañaria (Bizkaia)



**aserradero
zugazagoitia
agirre
maderas**

Aldegoiena, 2-a
48212 MAÑARIA (Bizkaia)
Tel./Faxa: 946 818 798

Eguneko menuak **9,60 euro**
astelehenetik ostiralera
12:30 etatik 15:00 arte

Asteburuetan afariak
ogitartekoak, entsaladak,
hamburgesak, razioak, ...
20:30 etatik 23:00 arte



ERREKONDO
JATETXEA
94 681 85 77
Andra Mari, 11 - Mañaria
f errecondo taberna



MALLABIKO JAIEN EGITARAUA

ABUZTUAK 14, barikua, UMEEN EGUNA

11:00etatik **12:30**era, Mallabiko trikitilariak.

11:30ean, umeen txupinazoa botako du Alkate Txikiak.

12:00etatik **14:00**etara eta **16:00**etatik **18:00**etara, umeentzako parke berezia: puzgarriak, 'jumping'-a... parkean.

18:00etan, bits festa, parkean.

18:00etatik **21:00**etara, Tiakatu batukada.

19:00etan, txupinazoa Nahikari emakume elkartearen eskutik.

19:30etik **21:00**etara, txokolatada eta Adarra jotzen, plazan (sariak egongo dira).

21:30ean, pilota partiduak, Mallabia I kirol etxean.

- Elezkano-Iza / Olaetxea-Zabala.
- Berasaluze II.-Albisu / Urrutikoetxea-Aretxabaleta.

Azken orduan aldaketak egon daitezke.

Pilota partidurako sarrerak abuztuaren 3tik 12ra salgai, udaletxean.

- Mallabiko langabe, ikasle, jubilatue eta pentsiodunentzat 12€ justifikazio txartela erakutsita.

- Gainontzeko mallabitarrentzat 18€.
Partidu egunean, leihatilla 21:00etan zabalduko da, eta sarrerak 25€-an egongo dira denentzat.

23:00etan, erromeria Basajaun taldeagaz, plazan.

ABUZTUAK 15, zapatua, ANDRA MARI EGUNA

11:00etan, meza, Jasokunde parrokian.
Ondoren, kalejira plazatik pilotalekura, Mallabiko dantzariekin.

12:15ean, Mallabiko dantzarien emanaldia, pilotalekuan; **ondoren**, Bixente Amestiri omenaldia.

17:30ean, tute, mus eta briska txapelketak, tabernetan.

17:30ean, Mallabiko XXV. Harri-jasotze Saria. Harri txikia.
Tokia: Mallabia I kirol etxea. 100 kg-ko zilindro zaharra eta 100 kg-ko bola.
Parte-hartzaileak:
Nafarroatik Josetxo Urrutia.
Bizkaitik Inhar Urruzuno.
Gipuzkoatik Izeta III, Xabat Odriozola, Mikel Lopetegi, Iñigo Izagirre eta Aimar Galarraga

Sariak:
1. 800€ garaikurra eta txapela.
2. 650€ eta garaikurra.
3. 500€ eta garaikurra.
4. 400€.
Gainerako parte-hartzaileentzako dieta 250€.
Dagoen marka ontzen duenari 180€.
Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea egun berean amaituko da.

19:30ean, kale antzerkia, parkean.

23:00etan, Demode Quartet taldearen ikuskizuna, parkean.

ABUZTUAK 16, domeka, SAN ROKE EGUNA Nagusien eta Kuadrillen Eguna

11:00etan, XVI. Paella eta IV. Marmitako lehiaketetarako izen-ematea.
Oinarriak:
13:00etan, marmitakoaren eta, **13:30**ean, paellaren aurkezpena epaimahaiaren aurrean, eta, jarraian, sari banaketa.
- Talde bakoitzak bere sua ekarri behar du, butanoa edo barbakoa, baina sua ezin da lurrean egin.
- Lehiaketa herriko plazan egingo da.

12:00etatik aurrera 'Asto tonbola', parkean.

12:00etan, meza, Jasokunde parrokian.

Bazkarirako: Animatu eta ekarri etxetik platerak, edalontziak eta mahai tresnak. Nahi izanez gero, ontzi berrerabilgarriak egongo dira dohainik.
Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa.

14:00etan, jubilatuen bazkaria, Kontzejuzarrean, trikitilariak girotuta.

17:30ean, kuadrillen arteko jolasak.
(Antolatzailea: Mallabiko gazte asanblada)

20:00etan, mallabitar guztientzat sagardoa doan eta txerri-erre dastaketa (pintxo 2, 1€).

20:30ean, erromeria, plazan, Luhartz taldeagaz.

XXVII. Idi Proba Txapelketa: abuztuaren 21ean, 22an, 23an eta 24an.
Izen-ematea: abuztuaren 2an (domeka), 12:00etan, udaletxean.

Sariak:
1. 1.700€ garaikurra, txapela eta mantak
2. 1.450€ eta garaikurra
3. 1.300€ eta garaikurra
4. 1.100€ eta garaikurra
5. 1.000€
6. 900€
7. 850€
8. 800€
9. 750€
10. 700€

* Sarietara heldu ez arren, 30 untzeko marka gainditzen duen idi pareak 350€ jasoko ditu.

Oharra: Jaietan ezbeharren bat gertatuko balitz, Mallabiko Udalak ez luke inongo erantzukizunik izango.



Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!



MALLABIKO UDALA

Umeei zuzenduriko egitarauagaz hasiko dituzte Mallabiko jaiak

Manex Astarloa Alkate Txikiak botako du, abuztuaren 14an, umeen txupinazoa

> JAIK! Itsaso Esteban

Trikitilarien doinuagaz hasiko dira Mallabiako jaiak, abuztuaren 14an. Umeen Eguna izango da jai egitarauko lehenengo eguna, eta 11:00etan hasiko dira herriko trikitilariak jaiak girotzen. Manex Astarloa Alkate Txikia izango da aurten jaiei hasiera emateko enkargua izango duena; 11:30ean botako du umeen txupinazoa.

Umeen Eguna izango denez, goizean zein arratsaldean (12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara), umeen-tzako parke berezia ipiniko dute; puzgarriak egongo dira, eta *jumping* kirol modalitatea egiteko aukera ere bai, esaterako. 18:00etatik aurrera, gainera, bits festa egingo dute Parkean.

Ondoren, arratsaldean izango da Andra Mari jaien txupinazoa nagusia, Mallabian. Nahikari emakume elkartekoei egokitu diete aurten jaien hasierako txupinazoa botatzea. Jaien lehenengo eguna biribiltzeko, 19:30ean, txokolatadan elkartuko dira adin guztietako mallabitarrek,

eta pilota partiduak izango dituzte, 21:30etik aurrera, Mallabia I kirol etxean. Bestetik, Basajaun taldeagaz erromeria izango dute, 23:00etatik aurrera, plazan.

Kanta ezagunen bertsioak eskainiko ditu Demode Quartet taldeak, abuztuaren 15ean, Mallabian

Lagunarteko lehia

Abuztuaren 16an, Nagusien eta Kuadrillen Eguna izango dute, eta hainbat herriar elkartzen dituzten gastronomia lehiaketak eta kuadrillen arteko jolasak egingo dituzte. Hamaseigarren paella lehiaketa egingo dute, eta laugarren marmitako lehiaketa ere bai. Partaideek 11:00etan eman beharko dute izena. Herriko plazan izango dira lehiaketak, eta 13:00etan eta 13:30ean egingo dituzte sari banaketak. Plazan bazkalduko

dute lehiaketan parte hartzen dutenek. Herriko jubilatutak, aldiz, Kontzejuzarrean elkartuko dira bazkaltzera. Arratsaldean, kuadrillen arteko jolasak egingo dituzte, 17:30ean hasita.

Demode Quartet

Joli Pascualena, Mikel de la Fuente, Iker Huitzi eta David Rosco interpreteek, eta Patxi Barco gidolari eta eszena zuzendariak osatzen dute Demode Quartet 2010etik. Abuztuaren 15ean eskainiko dute emanaldia, gaueko 23:00etatik aurrera. Musika izango du ardatz ikus-kizunak. A capella zein pianoak, gitarrak, biolak eta kutxa flamenkoak lagunduta, koreografia atsegin eta elkarrizketa bitxiekin osaturiko kontzertua da. Kanta ezagunen bertsioak *Purple rain*, *Billie Jean*, *Saturday night fever* eta *I say a little prayer kantak*, esaterako— zein euren sorkuntzak eskainiko dituzte. Euren teoria bat frogatzea dute helburu: munduko musika estilo guztiak euskal musikatik eratorriak direla.



Abuztuaren 16an egingo dituzte kuadrillen arteko jolasak. Valentin Mugarza



Abuztuaren 15ean, 23:00etatik aurrera izango da Demode Quarteten saioa.



Areitio auzoko Barrengoa baserriko semea da Amestiri.

Omenaldia egingo diote jaietan, abuztuaren 15ean, Bixente Amestiri

Mallabitarren esker ona jasoko du, Andra Mari egunean, Bixente Amestik

> HERRI KIROLAK

Andra Mari egunean, abuztuak 15, omenaldia egingo diote mallabitarrek Bixente Amestiri (Mallabia, 1949) Barrengoa baserriko semeari. "Gizon xumea" dela diote ezagutu dutenek: "Egiten dutena zaparrada handirik atera barik egiten dutenetakoa". Abuztuaren 15ean, 12:15ean hasiko dute ekitaldia, Mallabia pilotalekuan.

Herri kirolen arloan, batez ere bereziki gogoko duen aizkora eta asto proben munduagaz

Herri kirolen munduan eta abesbatzagaz egindako lana eskertuko diote Amestiri

"Egiten dutena zaparrada handirik atera barik egiten duten horietakoa da Bixente Amestiri"

izandako lotura, eta Jasokunde abesbatzean izandako ibilbidea eskertuko diote Amestiri abuztuaren 15eko omenaldiagaz. Herri kirol emanaldi bat izango dute ikusgai, besteak beste, egun horretan. Aurrekoa ere eskainiko diote Amestiri, eta lore sorta bat jasoko du; eta Jasokunde abesbatzako kideen eskutik baita oroigarri bat ere.

Omenaldiaren ostean ere, herri kirolek beteko dute Mallabia I kirol etxea. Harri-jasotze saioa egingo dute, jaiekin jarraitzeko.



HYDRAULIC

Urriaga etorbidea, 6
MALLABIA
Tel.: 943 17 12 00
Faxa: 943 17 41 66
comercial@larzep.com

JUBILATUEN ETXEA

☎ 943 176 602 • MALLABIA



rotek
rótulos

www.rotekrotulos.com

Olatz Areitiourtena, Begoña Arrieta eta Marian Agudo | Mallabia | Nahikari emakume elkarteko kideak

“Orain arte, batez ere gizonek bota izan dute txupinazoa”

Nahikari emakume taldekoen txupinazoagaz hasiko dira aurtengo Andra Mari jaiak, Mallabian



Areitiourtena, Arrieta eta Agudo, berbaldiaren ostean.

> TXUPINAZOA M. Onaandia Emakumeen hartu-emanak sustatu, jabekuntza landu, eta berdintasuna aldarrikatzeko sortu zen Nahikari emakume taldea, 2010ean, Mallabian. Urteotan hainbat ekintza garatu ditu herrian, eta, lan horregatik, udalak jaietako txupinazoa jaurtitzeko ardura eman dio. Abuztuaren

14an, 19:00etan emango diete jaietako hasiera. Elkarteari, Mallabiko errealitateari eta jaietako buruz berba egin dute Olatz Areitiourtena, Begoña Arrietak eta Marian Agudok.

Jaietako txupinazoa botatzeko aukera eman dizue udalak. Zelan baloratu duzue?

Olatz Areitiourtena: Asko da guran pentsatu izana. Gainera, orain arte, batez ere gizonek bota izan dute txupinazoa, eta hori ere kontuan hartzekoa da.

Zer urtetan jaio zen Nahikari elkarteak?

O.A.: 2010ean. Edozelan ere, lehenagotik ere egiten ziren

“**Uste dugu matxistak gainerakoak direla, baina gu ere sartzen gara dinamika horietan**”

“**Mallabiko elkartearen 30 emakume egotea gauza itzela dela uste dut**”

emakumeen arloko ekintzak udaletik. Baina 2010ean hasi ginen emakumeok gure kabuz.

Matxista ugari al dago Mallabian?

O.A.: Bai. Gauza asko ez dira aldatu, eta esango nuke, gazte batzuk zelan datozen ikusita, atzerantz goazela.

Begoña Arrieta: Normalean, etxeko pisu guztia emakumeak hartzen du bere gain, eta aldaketa gertatzea oso ondo egongo litzateke.

Zer onura ekartzen dizue elkarrean egoteak?

B.A.: Gauzak egiteko modu bat

da. Izan ere, bestela, horrelako elkarte bat ez badago, ez zara mugitzen.

Marian Agudo: Nik uste dut elkarteak duen gauzarik onena emakumea gaitasunez janztea eta zer rol bete gura duen ikustea dela. Beti uste dugu matxistak gainerakoak direla, baina gu ere sartzen gara dinamika horietan. Emakume lez hori deskubritzeak gainerakoa aldatzen lagundu dezakeela uste dut. Adin ugaritako emakumeak gara, eta horrek ikuspegi asko ematen dizkigu.

B.A.: 60 urtetik gorakoen eta 30 urtekoen bizimodua ez da berbera izan. Adibidez, sexologia ikastaroa jaso genuenean nabaritu zen hori; hori barik, gauza asko ez genituzke jakingo.

Zenbat emakume osatzen duzue taldea?

O.A.: 27-30 gara. Nik uste dut baserriko emakumeentzako aitzakia ona dela handik irteko. Ea jende gehiago animatzen den!

M.A.: Auzo eta baserri guztiak kontuan hartuz gero, errealtate sakabanatua dugu Mallabian, eta hilabete birik behin edo batzen gara batzarrak egiteko, ekintzez gainera. Mallabiko elkartearen 30 emakume egotea itzela dela uste dut.

Txupinazoa jaurtiko duzue. Zelako jaiak izatea gurako zenukete?

O.A.: Jende guztiak ondo pasa dezala, eta ez dadila genero diskriminaziorik egon. Bestalde, emakumeen partaidetzagaz lotutako rol batzuk aldatzea komeni dela uste dut. Txupinazoagaz batera txaranga bat egongo da, eta talde hori emakumeekin lotura duen talderen bat izatea eskatu dugu.

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola

Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

RHEYDE
Ianabesak s.l.

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA • 184 PK - 48260 ERMUA

- ✓ Perfilados
- ✓ Modificación
- ✓ Recuperaciones

Excavaciones Jon
Lur mugimenduak

• Jon Garitagoitia Gallastegui •

MOTA GUZTIETAKO
INDUSKETAK
HONDAKINDEGIA

Pagotxueta, z/g • GERA • 48269 MALLABIA
Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099

Excavaciones
BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia

• 629 340 410 •
• 618 954 280 •

excavacionesbolina@hotmail.es

BETEARTE

BI-3342 errep., pk. 38 • Areitio Garaia
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 170 307



**lagoeneko
%80
baina gehiago
salduta**

**azken
aukerak
ez galdu**

**ERROTARITXUENA
DURANGO**

Errotaritxuenaren
arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvias.es Sabadell Guipuzcoano **B S**

946 46 20 41
www.sukia.com

sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Musika, antzerkia eta zirkua uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du Javier Garcia *Mimo* (Zaldibar, 1978) aktoreak, Durangoko Uda Klean Bizi jaialdiaren barruan. *Eskobien atzetik* izena du ikuskizunak, eta uztailaren 19an, 19:00etan, udaletxeko plazan eskainiko du. Aktorearen berbetan, ikuskizuna oso aproposa da iluntzean, beroa igarota, aire librean ikusteko: “Kalera egokitzen da ondoen ikuskizun hau: barre egiteko, eta abileziekin eta antzerkiagaz gozatzeko aukera izango da”, adierazi du Garciak.

“Barre egiteko, eta abileziekin eta antzerkiagaz gozatzeko aukera egongo da Durangoko emanaldian”

Javier Garciak egiten du antzezlaneko protagonistaren papera, kale garbitzailearena. Garciagaz batera, ikuskizunerrako musika sortu duen Juan Antonio Parra *Zuri* taldekidea ere agertzen da eszenan, bere gitarragaz ikuskizuna zuzeneko musikagaz osatzera.

Eskobien atzetik umeentzako zein helduentzako pentsaturiko



Zirkua eta antzerkia uztartzen ditu Garciak 'Eskobien atzetik' ikuskizunean.



‘Eskobien atzetik’ ibiliko da Garcia zaldibartarra, Durangon

Domekan, 19:00etan, eskainiko du Javier Garcia ‘Mimo’-k ikuskizuna

ikuskizuna dela azpimarratu du Garciak; 2006. urtean estreinatu zuten antzezlan baten moldaketa da: “Gure istorioa denentzako modukoa da, umeek ulertzen dute eta helduek sakontasun

bategaz egin dezakete euren interpretazioa. “Duela hamar urte sorturiko ikuskizunaren esentzia mantenduko dugu, baina hainbat beritasunegaz eskainiko dugu”, azaldu du Garciak:

“Berbarik bako ikuskizuna da, oso dinamikoa, atsegina eta gozagarria, eta umorea zein akrobaziak eskaintzen ditu”.

Hamar urte baino gehiago dira, beste konpainia batek, Zal-

dibarren eta Elorrioren emanaldi bana eskaini zuenetik, baina ordutik hona Durangaldean ezer erakutsi barik egon da. “Euskal Herriagaz lotura mantendu guran nabil, eta Durangoko San Agustin kulturuneagaz harremanetan jarri nintzen, ikuskizuna eskaintzeko: aukera eman didate, eta pozarren nago”.

Javier Garcia 19 urteagaz joan zen Bartzelonako zirkuko eskolara ikastera, eta Kordoban bizi da orain

19 urteagaz Bartzelonako (Katalunia) zirkuko eskolara ikastera eta, ondoren, Malagako konpainia batek lan egitera joan orduko, Zaldibarren bizi zen Garcia. “Baina nire bizitza erdia Zaldibartik kanpo egin dut, dagoeneko: zirkuan eta antzerkian lanean zebilen jendea ezagutzen nuen hemendik kanpo, eta horren bila joan nintzen”.

Gaur egun, Kordoban (Andaluzia, Espainia) bizi da, eta han sortu zuen, duela hamar-kada bat, Cia Barré konpainia. Harrezkero, *Eskobien atzetik* lanaren aurretik, *Juan Palomo, historias a la intemperie* ere estreinatu du.

Kubako Camagua taldea gonbidatu dute Durangora

Uztailaren 25ean, 20:30ean, Santa Ana plazan eskainiko dute dantzaldia Camaguak eta Kriskitinek

> DANTZA

1999. urtetik egiten duen eran, nazioarteko dantzariak gonbidatu ditu Durangoko Kriskitin taldeak, Durango Folk jaialdian parte hartzera. Kubako eta Euskal Herriko dantzak izango dira aurtengo protagonistak; Kubako Camagua dantza taldeko 32 kide, musikariak eta dantzariak, etorriko dira Durangon saioa eskaintzera, eta Kriskitin taldeko dozena bat dantzari ere emanaldia eskainiko dute, uztailaren 25ean.

Ikusmena zein entzumena gozatzen dituen emanaldia eskainiko duela aurreratu du Camagua taldeak. Kubako folklorearen erakustaldi zabala eskainiko du. Kubako hainbat eskualdetako kulturen berezitasunak islatuko ditu Durangaldeko ikusleentzat: esaterako, Ciego de Ávila eskualdean oraindik ere bizirik dirauten jatorri jamaikarreko antzeppen eta dantzak, Trinidad eskualdeko runba eta tonada, eta jatorri afrikarreko zeremonia erritualetan oinarrituriko dantzak.

Kriskitin dantza taldekoek azpimarratu dute, itsasoz bertaldekotik etorriko direnez, gonbidatuek izango dutela uztailaren 25eko emanaldian protagonismo nagusia. Baina, ohi bezala, dantzari durangarrek ere dantza saioa eskainiko dute.

Durangaldeko dantzeekin hasiko dute emanaldia, eta Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako dantza emanaldi laburrak ere egingo dituzte.

Kubako Camagua taldeko 32 kide, musikariak eta dantzariak, etorriko dira Durango Folk jaialdira

Uda Klean Bizi programako azken emanaldia izango da Durango Folk. Egitarau horretako guztiak bezala, doakoa izango da emanaldia, eta aire librean egiteko pentsatuta dago. Baina euria egingo balu, emanaldia Andra Marira lekualdatzea aurreikusi dute.



Kubako folklorearen pluraltasuna erakutsiko du Camagua taldeak, Durangon.



Durangaldeko dantzeekin hasiko du Durangoko Kriskitin taldeak bere dantza emanaldia.

Joseba Arana (Durango, 1966) | Durangoko Kulturala futbol klubeko kirol zuzendaria

Jokalari asko joan, eta beste batzuk etorri dira; hala ere, maila oneko taldea osatu dutela, baina helburuak partiduz partiduz ezarriko dituztela dio Aranak.

“Lehenengo taldean jokatu dezaketela sentiarazi behar diegu gazteei”

Amorebieta klubean gaztetxoek mailako futbola koordinatzen ibili da Joseba Arana lau urtez, eta hurrengo denboraldian Durangoko Kulturalako nagusi eta gazte mailako taldeen kirol zuzendari lanetan ibiliko da

> FUTBOLA Joseba Derteano
Joseba Aranak bere lehenengo esperientzia izango du kirol zuzendari karguan. Orain arte gazteekin lan egin izan du. Ez dakar iraultzarik, eta orain urte batzuk Kulturalak taldea etxekotzen hasitako bidean sakontzea du helburu. Lehenengo taldeak harrobitik eta Durangaldeko jokalariekin elikatu behar duela nabarmendu du.

Zeintzuk izan dira Kulturalaren eskaintza onartzeko arrazoiak?
Esperientzia bat gehiago izango da niretzat. Aurretik sekula ez dut horrelako klub bateko kirol zuzendaritzarik eraman. Orain arte gaztetxoekin edo harrobian ibili izan naiz beti. Kulturalako presidentek deitu zidan proposamena egiteko, eta asko kostatu zitzaidan erabakia hartzea, hiru-lau hilean buruari bueltaka ibili naiz. Lagunekin eta estimatzen dudan jendeagaz berba egin dut, eta salto hau egitera animatu naute.

Lau urtez Amorebietan harrobia lantzen ibili zara. Zelako esperientzia izan da?
Oso ona. Gaztetxoak apurka-apurka ikasten dabiltzala ikus-

tea da atseginik handiena ematen didana. Haur kategorian ezagutu nituenetik gazte mailara heldu arte garapen bat izan dutela ikusteak asebate egiten zaitu.

Gaur egun zelakoa da Amorebietaren harrobia?
Lan ona egiten dabilela uste dut. Orainsu, aurrera begirako harrobiko kirol proiektua aurkeztu zuten, eta aurrerapauso eta bultzada on bat izan daitekela uste dut.

Kulturalako zuzendaritzak zer eskatu dizu? Zer espero du zuegandik?
Zuzendaritzak ez dit eskakizun berezirik egin. Ni kargu horretarako pertsona aproposa nintzela uste zuen. Hasieran, berba horiek larregi zirela pentsatu nuen; gazteekin asko ibili naiz, mundu hori ezagutzen dut, baina kirol zuzendaritza beste kontu bat da. Azkenean, taldea indartzeko hiru jokalariek arri eta asmatu eziz, begirada guztiak zugana zuzentzen dira. Edozelan ere, ez dut uste gure kasua hori denik, gure ideia etxeko jokalariekin jokatzeko delako. Jokalari gazteek etxeko

lehen taldean jokatzeko aukera benetakoa dela ikusi dezatela nahi dugu. Lehen taldera heldu daitezkeen ilusioa izan behar dute, eta Kulturalagaz identifikatuta sentitu behar dira. Hori sentiarazi behar diegu gazteei; kanpotik hamar jokalariekartzen baditugu, “Nik ez dut aukerarik”, pentsatuko dute.

“**Taldeari exijitu ahal eta behar zaiola uste dut, baina egoera zein den ulertuta**”

Beraz, azken urteetako bidea jarraituz, etxekoek lehentasuna izango dute.
Filosofia horren aldekoak gara, eta, are gehiago orain, gazte mailako taldea Nazional Mailan dugunean. Gazte horiek guztiak lehen talderako baliozkoak direla pentsatu behar dugu. Oraingoz datorren denboraldirako egituratuta dugun taldean, hogeitik hamabost bat-edo Kulturalan egon dira, edo iraganean loturaren bat izan

dute. Klubeko, herriko eta Durangaldeko jokalariei aukera eskaintzea da gure asmoa. Izan ere, Kulturalan ibili ez diren gazteak egon daitezke herrian.

Ez da erraza denei tokia egitea.
Hasi berri dugun proiektu hone-tan, buruan darabilgun helburu bat Kulturala B taldea sortzea da, gazte horiei irteera bat eskaintzeko. Bi mailen arteko lotura lana egingo luke. Baina hori epe luzera begirako asmoa da, eta ez datozen bi-hiru urteetarako. Kontuan izan behar da gazte talde konprometitu bat behar dela. Hirugarren Erregionalean hasi, eta, esaterako, Ohorezko Mailara arteko bidea egiten ahaleginduko litzatekeen gazte talde baten sakrifizioa beharko litzateke. Lehen begiratuan, gazteentzat ez da erakargarria Hirugarren Erregionaletik hasi behar hori, eta, seguruenik, kosta egingo da. Dena ondo antolatu, eta produktua ondo saldu behar da. Kulturalaren bigarren taldeagaz igoerak lortu eta goranzko bide horretako parte izatea erronka motibagarria izan daitekeela ikusarazi behar zaie gazteei. Kulturalarentzat nagusien bigarren talde bat Maila

Gorenean edo Ohorezko Mailan izatea itzela litzateke. Amorebietan, esaterako, bigarren taldeak Lehen Erregionalean jokatzen du, eta helburua lortzen dabil.

Lehen taldearen eta gazteen ardura izango duzu, eta Ander Sanabriak kadete eta haur kategorietako taldeen ardura. Zer hartu-eman izango duzue?
Ander koordinazio lanak egingakoa da Morazan, hamar urtez, eta entrenatzaile titulua du. Jendea falta zitzaigun, eta bera-gaz esparru bi bete ditugu: haur kategoriako eta kadete mailako taldeen kirol ardurekin batera, kadeteen taldea entrenatuko du. Bion arteko hartu-emanari dagokionez, ez gara bakoitza bere aldetik ibiliko. Kontrakoa: hartutako erabakiak bion artean adostutakoak izango dira.

Lehen taldean aurpegi berri asko daude?

Joan diren jokalariek gehienak Bigarren B Mailako taldeetara joan dira. Azken batean, iaz taldeak osatu zuen denboraldi bikaina ez da oharkabea pasatu. Ondorioz, bederatzi jokalariek etorri dira taldera, eta horietako bi gazte mailatik igo dira.

Testuinguru horretan, zein izango da taldearen helburua hurrengo denboraldian?

Badaude diotenak Hirugarren Mailako talderik onenak igo egin direla, maila *deskafeinatu*-ta geratu dela eta orain ligako oilarra Kulturala dela. Nire ustez, topikoa dirudien arren, lehen helburua mailari eustea da. Jokalari asko heldu zaizkigu, eta ez da iazko talde bera. Partiduz partiduz joanda ikusiko dugu emaitzek non jartzen gaituzten. Baina, hori bai, ilusioari ezin diogu mugarik jarri. Taldean jarraitzen duten zein fitxatu ditugun jokalariegan konfiantza handia dut.

Zaleak beste denboraldi handi baten esperantzan egongo dira.
Taldeari exijitu ahal zaiola eta exijitu egin behar zaiola uste dut, baina egoera zein den ondo ulertuta. Iaz laugarren geratu eta aurreko hirurak igo izanak ez du esan gura Kulturalak lehenengo geratu behar duenik, ezta playoffetarako sailkapena errepikatu behar duenik. Denboraldi hasieratik helburu finkoak zehaztea erraztea dela uste dut. Gure jokamoldeari eta filosofia-ri jarraituz jokatuko dugu, eta denborak esango du nora heldu gaitzekin.

Zubizarreta errebantxaren bila, Zornotzako Master Kaiolako finalean

Zubizarreta eta Aranguren gipuzkoarrek kadete mailako finala jokatu dute bihar; oraintsu, Tolosan, elkarren kontrako finalean, Aranguren nagusitu zen



Txapelketako aurkezpen ekitaldia, antolatzaileekin eta laguntzaileekin.

> PILOTA Joseba Derteano Hilabete bian Euskal Herriko gazte eta kadete mailetako pilotaririk onenak batu ditu Zornotzako Master Kaiola txapelketak. Guztira, 60 pilotari lehiatu dira. Finalak, zapatuan, 18:30etik aurrera jokatu ditzuzte, Zornotzako pilotalekuan.

Kadeteetan, Aitor Aranguren usurbildarra eta Iraitz Zubizarreta ataundarra lehiatu dira. Orain hiru aste Tolosako Txapelketako finala elkarren kontra jokatu zuten, eta orduko hartan Aranguren nagusitu zen. Biharko txapela “batera zein bestera” joan daiteke Iker

Hormaetxea Lagun Onak pilota taldeko kide eta txapelketaren antolatzailearen esanetan. “Biak dira boteretsuak”. Aranguren mutil garaia da, eta, atzelaria izanagatik, “airez ondo moldatzen da, eta sake ona du”. Finalerdietan Lerena Espainiako txapelduna kanporatu zuen,

partidu gogor batean: 22-21.

Zubizarreta aurrelariak ere bizi erabiltzen du pilota; gainera, “oso teknikoa da, gantxo milimetrikoak egiteko kapaz da”. Aurten Euskal Herriko Binakako Pilota Txapelketa irabazi du gazte mailan, berea baino maila bat gorago. Pilotari bien aurrekariak eta dohainak ikusita, final ikusgarria izan daiteke.

Gazteetan, Petite faborito

Gazte mailako finala Iban Petite errioxarrak eta Aratz Irazustabarrena alegiarrak jokatu dute. Biak aurrelariak dira. Petite da txapela janzteko faborito. Hasieran, eskuko minagatik, ezin izan zuen txapelketan parte hartu. Finalerdietan bigarren aukera bat izan zuen gaixorik zegoen Garciaren orde, eta ondo baliatu zuen. Petite “dinamita hutsa da”, dio Hormaetxeak: “Hanka arinak ditu, eta fisikoki txapelketan ikusi dudan onena da”. Profesionaletako Alvaro Untoriaren lehengusua da.

Irazustabarrena “txapelketako sorpresa” izan da, eta “merezimendu osoz” sailkatu da finalera: “Engainatzen duen pilotaria da. Ez dirudi asko jokatzen duenik, baina lehen tantotik azkenera oso kontzentratuta egoten da. Oso pilotaria da”.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

Mendi lasterketen EHko selekzioko hautatzailea

Chamonix eta Zermatt

